hiruka
156. zenbakia
2020ko otsaila

MAROMA DOKUMENTALA Idatzi gabeko Erandioko historia

«Ikusezinak diren historiak ikusarazi nahi ditugu»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Unai Sarriugarte, Eunate Muruaga, Izei Azkue, Xabier Buenetxea, Aritza Bergara.
Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo · Leioa · Erandio Elizateko Udala
Berangoko Udala · Plentziako Udala · Gorlizko Udala
Urdulizko Udala · Barrikako Udala · Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Idatzi bako Erandioko hist

4

Aurkibidea

4 ***Maroma* dokumentala**
10 **Albiste izan da**
14 **Hizkuntzaren zalantzategia**
15 **Gatz-ozpinetan**
16 **Naturaren behatokitik**
17 **Izena duen guztia omen da**
18 **Hirudika: Uribe Kostako ondarearen bila**
24 **Ionan Marigomez, Plentziako Itsas Estazioko zuzendaria**
29 **Mundukatuak: Joserra González**
30 **Euskal presoak HABEko ikasle ofizial izateko borroka**
32 **Warterpolo Euskaraz Bizi! (WEB!) ekimenaren aurkezpena**
34 ***Dantzxori*, naturaren aldeko aldarria egiten duen inauteria**
36 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**

24

Ionan Marigomez: «O gutxi dakigu itsasoaz

oriari begira

Askotariko ondarea dugu eskualdean

18

so
»

30

Euskal presoen euskara ikasteko eskubidea bermatzeko irakasle-sarea

34

Dantzxori, Astrabuduko aratusteak

Harriz harri idazten den historia



Erandioko Txoko Feministako kideek bost urte eman dituzte udalerriko hainbat emakumeren testigantzak batzen eta ordenatzen, *Maroma. Idatzi gabeko Erandioko historia* dokumentala egiteko. Auzoz auzo, udalerriko askotarikotasuna islatzen duen zortzi emakumeren lagina osatu dute, kamera aurrean, egunero emakumeek pairatzen duten bortizkeria ikusgarri eta ikusezina mahai-gaineratzeko. «Denok dugu zer kontatu; emakumeon kasuan, gainera, askotan gure historiak ikusezinak izan dira, eta horiek ikusarazi nahi izan ditugu», azaldu dute dokumentalaren sustatzaileek.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIAK: **AL BORDE FILMS** ▶

Erandioko Axpe dartsenan *Sustraiak* izeneko eskultura topa daiteke, Astrabudua eta Altzaga auzoen bidegurutze baten erdian, itsasadarrari begira. Hiru tona pisu eta bost metroko altuera duen brontze-puska horrek «udalerriaren aberastasuna» irudikatzen ei du, Paulino Larrañaga horren egilearen arabera. Erandioko Udalaren aginduz 2006an jarritako obra hori hiru figurak osatzen dute: nekazari, arrantzale eta fabrika-langile bana, den-denak gizonak. Eskulturak ezinegona eragin zuen gizartearen zati batean, «udalerriaren aberastasun» hori irudikatzeko biztanleriaren erdia kanpoan uzten duelako: emakumeak. «Lan horrek ez du udalerriko gizartea bere osotasunean irudikatzen; emakumeak desagerrarazi dituzte guztiz», deitoratu dute Garazi Hidalgo Bilbao eta Haizea Zugazaga Dominguez Erandioko Txoko Feministako kideek. «Guretzat beste indarkeria-adierazpen bat da eskultura hori». Hidalgok azaldu duenez, gainera, joan den martxoaren 8ko protestetan morez margotuta esnatu zen Axpeko dartsenan lekututa dagoen obra hori eta, dioenez, ekintza horrek zalaparta itzela eragin zuen udalerrian, baita sare sozialetan ere; erasoaren aurkako gaitzespen-mezuak agertu ziren nonahi, diru publikoz ibaiertzean ezarritako obra-puska hori nork garbituko duen kexuka, «baina inork ez zuen galdera egin ea zergatik agertu zen hori margotuta, horren existentzia hutsak emakumeoi egindako erasoa izango ez balitz bezala».

Sustraiak monumentuak Erandioko gizonen historia soilik batzen duelako ildo horretatik, udalerriko emakumeen bizipenak biltzeko dokumentala ekoitzi du Txoko Feministak: *Maroma. Idatzi gabeko Erandioko historia*. Zugazagak azaldu duenez, *maromo* edo gizonkote berba darabilte eskultura horren inguruan hitz egiten dutenean, «hiru gizon-puska agertzen direlako». Hori dela eta, berbaren jokoaz baliatuta, hitz hori aukeratu dute ikus-entzunezkoari izena emateko. Era berean, *maroma* gaztelerazko berba soka edo unama bat da, arrantzan eta itsas munduan darabiltena. Hala, azaldu dutenez, «soka horren irudia ere erabili nahi izan dugu lan honetan, nolabait emakumeon indarra eta sostengua irudikatzeko». Izan ere, idatzi gabeko Erandioko historiak bildu gura izan dituzte lan horretan, historia ez delako monumentuetan edo eskola-liburuetan agertzen dena soilik, «harriz harri idazten da». Harriak norbanakoak irudikatzeko metafora dira, emakumeak, «eta horien denen batasunak ematen dio historiari osotasuna», diotenez. Denera, zortzi emakume elkarrizketatu dituzte dokumentalerako; hala ere, Zugazagak azaldu duenez, helburua ez da zortzi pertsona horien historiak batzea soilik, «baizik eta ikusaraztea inguruan ditugun emakume denek badutela zer esana. Orokorrean kontatzen ez dituzten historia asko dituzte azaltzeko eta horiek denak historiaren zatia ere badira, gertukoak gainera». Hidalgok gaineratu duenez, «askotariko gaiak jorratu nahi izan ditugu eurekin, batez ere euren jabekuntza-prozesuak zelakoak izan diren irudikatzeko». Izan ere, azaldu duenaren arabera, elkarrizketatu bakoitzak bere borroka du, eta horixe izan da Txoko Feministak azpimarratu gura izan duena, idatzi gabeko Erandioko historia aurkezteagaz batera.

Aiora Sedano

Lourdes Cerrato

Maiteder Estévez

Amaia Arriaga

Elkarrizketatuak aukeratzeko orduan hainbat ezaugarri ipini dituzte mahaiaren gainean Txoko Feministako kideek. Azaldu dutenez, auzo, adin eta jatorri ezberdinetakoak batu dituzte, lagina ahalik eta esanguratsuena izate aldera. Hala, hurrengo pertsonen testigantzak ezagutzeko aukera egongo da *Maroma. Idatzi gabeko Erandioko historia* dokumentalean: Aiora Sedano, aktorea; Amaia Arriaga, astrabuduarra eta sindikalgintzan aritua; Iria Moraleja, sexu-trantsizioa egin duen Lutxanako gaztea; Lala Mujika, oso gaztetatik mugimendu feministan ibilitako astrabuduarra; Lourdes Cerrato, ezker abertzaleko militante ezaguna; Maiteder Estévez, aniztasun funtzionala duen Altzagako gaztea; Marisol Basterretxea, Lutxanako jubilatua; eta Xiomara Suaza, Bogotan jaio baina 16 urtegaz Astrabuduara bizitzera joan zen gaztea.

BOST URTEKO LANA. Txoko Feministako kide diren Hidalgok eta Zugazagak aitortzen dutenez, hasiera batean ez zekiten zelan gauzatu emakume horien denen testigantzak jasotzeko lana, ezta zein formatutan aurkeztu egindako dena ere. Hala, proiektuari forma ematen duela bost urte hasi ziren arren, urtez urte eta pausoz pauso proiektua aldatzen joan da, edukiak ikus-entzunezko dokumental batean aurkeztea ideiarik onena ondorioztatu zuten arte. Txoko Feministako bost kidek beharrari ekin zioten, audiobisualetan adituak diren pare bat emakumeren laguntzagaz. «Horiek biek talde teknikoa osatu zuten eta formakuntza txiki bat eman ziguten, hasiera batean guk ez genuelako ideiarik ere zelan egin zitekeen dokumental bat», azaldu dute arduradunek, «ez genekien zer-nolako garrantzia duen audioak mota honetako lan batean». Lantaldea osatuta zegoela, lanean hasi ziren.

Galdetegia osatzea izan zen lehenengo zeregina. Azaldu dutenez, galderak emakume-izaeraren ingurukoak izan dira: «Emakume sentitzen diren edo ez; zerk egiten gaituen emakume; Erandiorekiko zer lotura duten; zelako indarkeria edo zapalkuntzak pairatu dituzten; gorputzarekiko eta sexualitatearekiko lotura; eta bizitzan izandako inflexio-puntuak, besteak beste». Duela lau urte grabatu zuten lehenengo elkarrizketa, «eta urte eta erdi edo bi urte inguru eman ditugu elkarrizketak grabatzen», Zugazagak azaldu duenez. Hala ere, aitortzen dutenez, azkenengoa 2019an egin behar izan zuten, hasieran egindako bat bigarrenez landu behar izan zutelako hainbat arazo tekniko zirela eta. Denera, bost urte behar izan dute Txoko Feministako kideek ikus-entzunezko dokumental hori hasieratik amaierara arte gauzatu ahal izateko. Izan ere,

Entzute aktiboa ikusarazteko lana

Dokumentalaren sustatzaileek azaldu dutenez, *Maroma. Idatzi gabeko Erandioko historia* lanaren helburua da ikusaraztea eta indartzea entzute aktiboa gure egunerokotasunean, «azken finean, liburuetan edo telebistan agertzen dena lagin bat baino ez da; denok ditugu historiak kontatzeko, eta horiek denek historia osatzen dute». Horretarako, udalerriko zortzi emakumeren testigantzak batu dituzte, «askotan ikusezinak izan diren istorioak ikusarazteko».

Iria Moraleja

Lala Mujika

Marisol Basterretxea

Xiomara Suaza

Hidalgok gogoratu duenez, bertan parte hartu duten denek militantzia-lana egin dute, eta denbora tarte horretan askotarikoak jazo zaizkie: «Boluntario-lana egin dugu eta gure erritmoek ezinezko egin digute azkarrago ibiltzea. Egunero buruan genuen proiektua, baina bitarte horretan ume bi jaio dira, beste bat bidean dago, batzuek oposizioak egin dituzte... Martxa ezberdinak egon dira bost urteotan».

NATURALTASUNAREN GARRANTZIA. Dokumentalaren egileek garrantzi handia eman diote elkarrizketatutako emakumeen naturaltasuna irudikatzeari; hala, galdetegiak azken momentura arte gorde izan dituzte, grabaketen egunetara arte, «elkarrizketatuek erantzunak modurik ahalik eta espontaneoan eman ahal izateko». Horrek hainbat arazo eragin ditu gerora, talde teknikoa hasieran osatu zuten emakume biek ez dutelako proiektua amaitu. Elkarrizketa denak grabatu zituzten, baina ezin izan zuten muntaketa amaitu. Hori dela eta, Txoko Feministako kideek Al Borde Films taldekoakaz harremanetan jarri eta lan hori eskaini zieten. «Proposatu ziguten den-dena berriro hastea, zerotik; elkarrizketak berriro grabatu eta ondoren dokumentala editatu eta muntatu ahal izateko. Hala ere, guretzat hori ezinezkoa zen, bide bat eginda zegoelako, gurea, eta lortutako emaitzarekin oso pozik geunden. Gainera, elkarrizketatuek erantzunak ematean lortutako naturaltasuna errepikatzea ezinezkoa izango litzateke», azaldu du Hidalgok. Hala, ordura arte grabatutako elkarrizketak mantendu, errekurtsozko beste irudi batzuk egin eta muntaketa egin zuten Al Borde Filmseko emakumeek. «Oso pozik gaude lortutako emaitzarekin, izugarria izan da egindako lan guztia», feministek aitortu dutenez.

Erandioko Txoko Feministak sustatuta

Dokumentalaren nondik norakoak azaltzeko Haizea Zunzunaga eta Garazi Hidalgo Txoko Feministako kideakaz batu gara. Azaldu dutenez, bost urte eman dituzte horren lanketan.

OTSAILAREN 7AN, AURKEZPENA ALTZAGAN. *Maroma. Idatzi gabeko Erandioko historia* dokumentalaren trailerra dabordu-ko ikus daiteke Interneten; elkarrizketatuak izan ziren hori ikusten lehenak eta ikus-entzunezko osoa gainontzeko auzokideakaz batera ikusteko aukera izango dute otsailaren 7an, barikuan, egingo duten aurkezpenean. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Altzagako liburutegian. Bertan, dokumentala proiektatuko dute, Txoko Feministako kideek horren nondik norakoen aurkezpen bat egin ondoren. Horren ostean, bertara gerturatuko diren denek solasaldia egiteko aukera izango dute; «izan ere, gure helburua da erakustea denok ditugula borrokak eta esperientziak; denok egiten dugula historia, azken finean», azaldu dute Txoko Feministakoek. ◂

Iritzia **Pentsalekutik**

Eskirolei maitasunez

MAITANE NEREKAN UMARAN Ezertan aditua, askotan aritua

Greba-deialdia izan zen joan den urtarrilaren 30ean. Batzuek deialdiarekin bat egin genuen, nahi eta ahal izan genuelako (diru-galera onartu genuen; agian, norbaiti oraindik ere gogoratu behar zaio greba egiten dugunean dirua kentzen digula patronalak). Beste batzuek ez zuten greba egin nahi izan edo ezin izan zuten (animo zaintza-lanean zaudetenei!). Greba ez egitea eskubidea da, ados. Badakit, herriko dendari eta tabernari batzuek, deialdiaren arrazoiak ulertu bai, baina euren negozioan izan zezakeen eraginagatik, ez zuten negozioa itxi. Lanpostura joan zinetenen argumentuak zilegi dira, kapitalismoa gidatzen duten gizonek mehatxupean dituzte langileak, eta beldurra sentitzea zilegi da. Baina, mesedez, inork ez dezala lagunartean erabili modan jarri den argumentu neoliberal nazkagarria: grebek eta sindikatuek ez dute ezertarako balio. Algortan (Uribe Kosta osoan, zoritxarrez) sistema elikatzen dutenen kontra altxatzeko arrazoiak infinituak dira. Amenabar, Neinor edo halako mafiek gure herrietako lurren kontura aberasten dira. Aitite eta amama pentsiodunak esplotatuta ditugu, *kontsiliazioa* Emakunderen txiste sarkastikoa delako oraindik. Getxo Antzokiko astakeriarekin aberastu dena, Espainiako senatuan prejubilatu dute. Zure semeak ingeniaritza ikasten du prestigiozkoa dela esan zeniolako eta, enpresa-munduan sartzean, hamabi orduko lanaldiak ematen duen prestigioa zer den ikasiko du kolpez. Psikologoen kontsultak antsietatez jota daudenekin gainezka daude, sistema errepresibo eta erreprimitu honek gaixotu dituelako. Eta abar. 80ko hamarkadako Euskaldunako langileek baino arrazoi gehiago ditugu grebarako. Horiek langabe geldituko zirenengatik borrokatu zuten. Orain, lanean dauden askoren egoera ere penagarria da. Ez zaitez konformatu Franco oso gaiztoa zela esanez.

Iritzia **Sekula Betikotik**

Euskal udalekuak

ITXASO PAIA RUIZ Kultur teknikaria

Udan gure auzokoak «*pueblo*»-ra joaten ziren. Gainekoak Galiziara, parekoak Burgosera eta gu... gu udalekuetara joaten ginen, urtero herri batera. Hainbat udalekutan izena eman eta zozketaren zain egoten zen ama hiru seme-alabon udaren antolaketa aurreikusi asmoz. Zozketa bidez zenez kontua, gu denetara apuntatzen gintuzten, eta hortaz, askotan ere tokatu zitzaigun. Azken batean, dabilenari gertatzen zaio.

BBKren Briñas eta Sukarrieta hainbat urtetan probatu genituen. Batean zaldiak eta bestean piraguak. Foru Aldundiko udalekuetara ere hirukoteka apuntatzen ginen. Sekula ez ditut ahaztuko Zarautzen Mikel eta Ardarekin bizi izandako abenturak, Urdaibaiko Hitchcocken eszenen birsortzea Zior, Gerarda eta Fatirekin (Patri Espinar handia hezitzaile genuela), edo Izabako 2.000 metroak aldapan gora egitea. Gero bertso-udalekuak iritsi ziren eta, hor bai, hor nire *«pueblo»* maitea aurkitu nuen, hantxe zegoen nire familia. Nire *«pueblo»*-a ibiltaria zen, Euskal Herria zen, eta bulegoa Markina eta Elgoibar arteko baserri batean zegoen, Aubixan. Hantxe pasatu ditut azken hamazazpi udak, bertso-udalekuetan.

Hori bai, rankinga egin behar banu, Euskal Udalekuak kokatuko nituzke lehen. «Txoko txiki polit bat gordetzen du Arabak, non abuztuan ohi diren Euskal udalekuak». Behin baino ez nintzen egon, begirale gisa: bidaia bakarra, inoiz ahaztuko ez dudana. Euskal gizartearentzat eredu izan litekeen proiektua da; uda abenturaz bete eta horiek euskaraz bizitzeko aukera ematen duena, auzolanetik eta euskal kulturatik. Euskara, natura eta elkarbizitzaz gain, berdintasuna eta kooperazioa ere lantzen dira. Euskal Herri osoko gazte asko boluntario aritzen dira, «gozatzea eta gozaraztea sari» (Josu Agirre herrikidearen hitzetan); ez bakarrik Bernedon, baita Abaigar eta Goñin ere. Uda gero eta hurbilago dago, plan bila bazabiltza... ez egin zalantzarik.

Puntua eta kontrapuntua **Idatzi gabeko Erandioko historia**

Maroma

Herriaren irudi
diren harri hotzak
ez al dira askoren
begitan arrotzak?
Emakumeen izen,
gorputz ta bihotzak...
Behingoz entzungo dira
beraien aitortzak,
Historiak ostendu
zituen ahotsak!

PAULE LOIZAGA LEGARRA
Sopela

Nola zizelkaturik
duen memoriak
historian ez dauden
askoren egiak.
Nola emakumeen
esku ta begiak
izango diren eten
ez diren hariak,
ez daitezen ahaztu
hauen historiak!

ARAITZ LAŞA SEÑA
Algorta

ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Lehen/Orain **Itzubaltzeta/Romoko etxe merkeak XX. mende erdian**

ITURRIA: MEMORIAS DE GETXO

Erretratua **Javier Olabarrieta Learra** *Los claroscuros de una vida* liburuaren idazlea

Leioaztarra sortzez, bizitza ia osoa Getxon eman du Olabarrietak. Prozesu industrialak automatizatzen lan egin izan du, baina bere pasioa idaztea izan da beti.

TESTUA: **UNAI SARRIUGARTE LASARTE** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Javier Olabarrietak dioenez, betidanik maite izan duen arloa da idazkuntza. Prentsan hainbat artikulu idatzi izan ditu, herri-egunkarietan batez ere; gainera, industriagaz erlazioa duten artikuluak ere jorratu ditu. Erretiroa hartu zuenetik, idazteari buru-belarri ekin zion. Betiko lagunek ordenagailu bat oparitu zioten eta burutik igarotzen zitzaizkion ideiak paperera eroatera gonbidatzen zuten behin eta berriro. Gaur egun, Olasbarrietak bi zaletasun uztartzen ditu: idazteko pasioa eta Gure Esku Dago mugimenduan esku-hartzea.

Berriki, hamabi urte luzez ordenagailuan gordeta izan duen lana idaztera ausartu da: *Los claroscuross de una vida*. Unibertsitateko irakasle den lagun min batek liburua irakurri eta obra hori argitaratu behar zuela esan zion, eta halaxe egin zuen.

> «Nire adiskiderik onenek lan honen inguruan eman zizkidaten iritziei esker animatu nintzen lan hau kaleratzera»

Liburuak Felipe Ferrero Garzo *Txarrua* salamancar gazte ausart eta ipurterrearen nondik norakoak ditu hizpide. Umezurtz geratu ondoren, Salamancatik Euskal Herrira heldu da Felipe, Zeanurira hain zuzen ere. Han, artzain hasi eta Gorbeian murgilduko da; euskara ikasi eta euskal toponimiaren aldeko zaletasun ikaragarria bereganatuko du protagonistak. Era berean, urteak igaro ahala abertzaletasuna handituz joango zaio. 36ko Gerraren ondorengo urteetan bizi izandako hamaika abentura ere jsotzen dira bertan. Argitaratu berri duen lan hori bide baten hasiera baino ez dela ziur dago Olabarrieta, izan ere gehiago argitartzeko asmoa duela aitortu digu.



Getxo Muxikebarri

Zinema ezarri gura dute

Momentuz zinema barik dago Muxikebarri.

Getxoko Udalak azaldu duenaren arabera, zine-eskaintzaren hasiera atzeratu egin da Muxikebarri Antzokian, «arazo teknikoak direla eta». Hori zuzentzeko inplementazioak funtzionamenduan behin betiko jartzea ahalbidetuko du, eta hori behin amaituta iragarriko da. Instalatutako teknologia eta hasieran aurreikusita zegoena bat ez zetozela atzeman ondoren, dagokion prozedura hasi da ikus-entzunezko teknologiaren instalazioaren esleipena duen enpresa baliabide teknikoak alda ditzan. «Eskaintza horrek aberastu egingo du Muxikebarrin dagoen kultur programazio nabarmena», arduradunen berbetan. Bestalde, Udaleko gobernu-taldeak diziplina-espediente bati hasiera eman dio, ekipamendu horren garapen teknikoa kudeatu duen udal-langilea zigortzeko moduko erantzukizunik dagoen ala ez baloratzeko helburuagaz.

Getxo Aiboako igogailuak martxan

Aiboa eta Algortako goiko aldea, lotuta

Metro-geltokiaren ondoko igogailuek irisgarritasuna emango diete Aiboako goiko aldeari eta Foruen kaleari. Bertan daude Jesusen Bihotza Zaharren egoitza, udaletxea eta epaitegiak, besteak beste.

IKER RINCON MORENO ▶

05:45etik 24:00etarako ordutegian funtzionatuko dute igogailuek. GETXOKO UDALA

Amaia Agirre Getxoko alkateak eta Keltse Eiguren Bihotz Sakratuaren Udal Egoitzako presidenteak, beste udal ordezkari batzuekaz, aipatutako zentroko egoiliarrakaz eta Fekoor-Gutxitasun fisikoa edo organikoa duten Bizkaiko pertsonen Federazio Koordinatzaileko kideakaz batera, Aiboako metro-geltokia eta Algortako goiko aldea lotzen dituzten igogailu biak inauguratu zituzten urtarrilaren 31n. Jarduera horren bidez, oro har konexio irisgarria emango da, Neguritik (Txakursoloren igogailuakaz) Aiboara eta Alangora.

Lehenengo igogailua Aiboako metro-geltokitik ateratzen da (geltokiko sarbidearen paretik, egungo tunela amaitzen den lekuan) eta geraleku bi ditu: bata trenbide ondotik paraleloan doan espaloiaren mailan, eta bestea gorago, eraiki berri den oinezkoentzako ibilbidearen parean, bigarren igogailura daroana. Bigarren ekipamendu hori Miguel Beascoa kaleraino igotzen da, eta sarbide bi ditu; bata, Jesusen Bihotza zahar-etxean eta bere Eguneko Zentroan zuzen sartzeko eta bigarrena, Miguel Beascoa kalean bertan dagoena. Hortaz, igogailu bien erdian geraleku bat dago sortutako oinezkoentzako ibilbidean; Marqués del Real Socorro eta Arkotxa kaleetan gaur egun dauden ibilbideei segida ematen die ibilbide berriak, hor dagoen plazaren bitartez. Horrela, kaleak Aiboa-Alangon egindako jarduketa berriagaz lotzen dira eta Algortako erdigunerantz jarraipena ematen da, udal-arduradunek azaldu dutenez. ◀

25
metroko desnibela gainditzen dute.

16
lagun garraiatzeko gaitasuna dute.

Getxo Dirulaguntzak

Bazterkeriak prebenitzeko

Getxoko Udalak 180.000 euro bideratuko ditu aurten ere bazterkeria-egoerak prebenitzeko eta artatzeko, baita pertsonen eta familien gizarteratzea sustatzeko gizarte dirulaguntzetarako ere. Laguntza horiek aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, gastu espezifikoei edo apartekoak diren gastuei aurre egiteko nahikoa baliabide ez dituzten udalerriko bizilagunentzat. Berritasun modura, 2020an prestakuntzatik eratorritako gastuetarako laguntzak emango dira, eta genero-indarkeriagaz lotutako egoeragatik artatutako pertsonei Getxon hiru hilabeteko errolda eskatuko zaie, beste kolektibo berezi batzuei bezala; gainerako biztanleei sei hilabetekoa eskatzen zaie.

Getxo Aquarium-ak itxi du, behin betiko

Aquarium-eko animaliak, Donostiara

IKER RINCON MORENO ▶

Getxo Aquarium-eko instalazioen behin betiko itxieraren aurrean, arrain tropikalen eta koralen zati baten eta ur hotzeko espezie batzuen kargu egingo dela baieztatu du Donostiako akuarioak, Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioaren bitartez. Lekualdaketak otsailean abiatzea aurreikusi dute udal-arduradunek.

Akuarioak urtarrilaren 26an zabaldu zituen ateak azkenengo aldiz, eta urtarrilaren 31rako Disetecmar SL enpresak langile denak kaleratu zituen. Horren aurrean, ELA sindikatuak ezinbestekotzat jotzen du Aquarium-a ixteko benetako arrazoiak zeintzuk diren aztertzea; izan ere, borrokan jarraitzen dute oraindino langileek. Sindikatuaren ustez beharrezkoa da akuarioaren zerbitzua mantentzea ahalbidetuko lukeen edozein aukera aztertzea, orain arteko bost lanpostuak mantentzeagaz batera. Ildo horretan, EH Bilduk akuarioa eraberritu eta lokalari erabilera berriak bilatzea proposatu du, hala nola ingurumen-aretoaren parte bihurtuta kostaldearen defentsan lan egiteko eta aldaketa klimatikoaren kontrako kanpainak abiatzeko. ◀

«Ez dugu ulertzen zelan itxi daitekeen zerbitzua modu honetan; langileok zuzenean kaleratuta»

JAVIER URKIAGA
GETXO AQUARIUM-EKO LANGILE OHIA

Sopela Udal-gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioa

Onartu dituzte 2020. urteko aurrekontuak

Abenduan eztabaida atzeratzea erabaki ostean, urtarrilaren 29ko osoko bilkuran onartu zituzten Sopelako aurrekontuak urte honetarako: ia 15,3 milioi euro izango dira denera, iaz baino % 5,26 gehiago.

UNAI BREA ▶

EAJ, PSE-EE eta EH Bilduren ordezkariak, akordioa sinatzen. © SOPELAKO UDALA

Udal-gobernua osatzen duten talde biek, EAJk eta PSE-EEk, EH Bildugaz egindako akordioa medio, koalizioko sei zinegotziak abstenitu egin ziren bozketan, eta modu horretan ahalbidetu egin zuten aurrekontuok onartzea. Denok Baterako zinegotzia ere abstenitu egin zen, eta aurka bozkatu zuten Elkarrekin Podemoseko biek. Aldeko botoak gobernutik etorri ziren: EAJren zazpi, eta PSE-EErena.

Gobernu-taldeak EH Bilduren hainbat proposamen txertatu ditu aurrekontuetan, eta adostutako proiektuak aztertzeko hiru alderdiek osatutako batzordea sortu da. Azaldu dutenez, Sopelarako hainbat helburu estrategiko jaso ditu akordioak, hiru ardatz nagusitan sailkatuta: mugikortasuna, hezkuntza eta kultura, eta hirigintza.

Udal-gobernuak adierazi du «ahalegin handia egin dela adostasuna lortzeko», eta Sopelarentzat oso positiboa dela aurrekontuak izatea. «Kudeaketa ekonomiko eraginkorra mantentzen lagunduko dute, sopeloztarrentzat oinarrizkoak diren proiektuei eustea eta udal instalazioak eta azpiegiturak kalitatezko zerbitzu publikoekin hobetzeko bidean aurrera egin ahal izatea ahalbidetuko dute».

EH Bildu aitortu egin du udal-gobernuaren «jarrera-aldaketa». Onartu diren aurrekontuei hainbat kritika egin arren, euren nahia «ateak zabaltzea» dela azpimarratu dute, eta adierazi dute aurrekontuen gaineko akordioa etorkizuneko hitzarmen zabalago baten ernamuina izan litekeela. ◀

Akordioaren gakoak

Hiru ardatz nagusi ditu EAJk eta PSE-EEk EH Bildugaz sinatutako akordioak: mugikortasuna, hezkuntza eta kultura, eta hirigintza. Besteak beste, edigunearen zati bat oinezkoentzat izateko eta ikastetxe berri bat eraikitzeko lursailak gordetzeko proiektuak aztertuko dituzte.

Berango Trafikoa

Radar berria indarrean

Aspalditik Sabino Arana kalean ipinitako radarra otsailaren 3an hasi da lanean. Berangoko kale nagusiaren eraldaketagaz batera ipini zuten bertan radarra, oinezkoei lehentasuna eman eta gehienez hogei kilometro orduko abiaduran ibiltzeko araua errespetarazteko, baina aktibatu gabe egon da aipatutako datara arte .

Radarra zutoin batean dago eta zirkulazioaren noranzko bietan abiadura neurtzeko gai da. Hau da, ahalmena du autoen aurreko eta atzeko aldeetatik detekzioak egiteko.

Leioa Udal-laguntzak

Negozio-planei bultzada

Behargintzaren bitartez, urtarrilaren amaieran deialdia zabaldu zuen Leioako Udalak negozio-egitasmoetarako dirulaguntzak lortzeko. 2020ko otsailaren 10ean amaituko da eskaerak egiteko epea. Helburua norbere etorkizunaren «diseinatzaile» izatea eta lanpostuak sortzea da.

Dirulaguntzak multzo bitan bereiziko ditu Udalak. Lehendabizikoak enpresa-ideia bat garatzeko izango dira, enpresa berri bat abian ipintzeko asmoa izango dutenak. Bigarren multzoa, «enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak», negozio-ideia finko bat duten pertsonentzat egongo da disenatuta.

Erandio Udaltzaingoaren 2019ko memoria-txostena

Udaltzainen 8.335 jarduketa, denera

ERREDAKZIOA ▶

Erandioko Udaltzaingoak iaz egindako jarduketen txostena aurkeztu zuten Aitziber Oliban alkateak eta Joseba Eraña udaltzainen arduradunak urtarrilaren erdian. Alde handiz, txarto aparkatzeagatik ipinitako isunak eta galdutako objektuakaz zerikusia zutenak izan ziren jarduketa ugarienak.

Gutxi gorabehera 2018koaren berdina izan da iazko jarduketa-kopurua, Udalak zabaldutako datuen arabera. Denera, 8.335 izan ziren 2019an, eta aurreko urtean, berriz, apur bat gehiago: 8.586. Horietatik, 1.583k aparkatzeagaz zerikusia izan zuten, eta 1.250 isunak izan ziren (2018an baino nabarnen gutxiago, nolanahi). Horiekaz batera, jarduketa ohikoenak galdutako objektuakaz zerikusia duenak izan ziren: 740.

Hain zuzen ere, galdutako objektuei dagozkien jarduketak «hurbileko polizia» izeneko multzoaren barruan sailkatuta ageri dira memoria-txostenean. Aitziber Olibanen esanetan, poliziaren jarduera estilo horretakoa izatea da Udalaren apustu handienetako bat legealdi honetan. ◀

325

bider eman zitzaien herritarrei laguntza-motaren bat kalean, Joseba Eraña Udaltzaingoaren arduradun nagusiak azpimarratu zuenez.

Erandio Hirigintza

San Jose auzoko lanak aurrera

Erandiogoikoako San Jose auzoa berriztatzeko lanen lehenengo fasea amaitu da honezkero. Emaitzaren berri eman zuen Udalak urtarrilaren 27an, Aitziber Oliban alkateak bertan egindako agerraldiaren bidez. Noranzko bi zituen bidea eraldatzea eta noranzko bakarreko bihurtzea izan da aldaketarik handiena. Bide horretara sarrera Goiko Lopertu Bidetik egingo da, eta irteera, berriz, aurretik zegoenari jarraipena ematen dion adar berri batetik.

Iazko uztailaren 8an hasi zituzten lanak. Alkateak azaldu duenez, noranzko bakarreko galtzada berriak hiru metroko zabalera du, eta oinezkoentzako guneak sortu dira albo banatan, gutxienez metro bi zabal diren espaloiak ipiniz. Zuhaitzak ere gehitu dira.

Uribe Kosta Kirola

Aurtengo Kosta Trailek badu data

Ekainaren 14an egingo da Kosta Trail. Ohi denez, parte-hartzaileek lasterketa edo oinezko martxa aukeratu ahal izango dute, Uribe Kostako mendi eta labarretan egiteko. Antolatzaileek gogorarazi dute batzen den diruaren zati bat elkartasun-ekimen bati ematen diotela urtero. Zehazki, 2006an lehenengoz egin zenetik 154.000 euro inguru bideratu dituzte halakoetara. Ohiko hiru probak izango ditu 2020ko edizioak: mendiko maratoi erdia (21 km), mendi-martxa (20 km) eta familientzako martxa (7 km).

Gorliz Herri-galdeketa

Bigantxa-proben kontra, nagusi

Gorlizko Santiago jaietan egin ohi diren bigantxen ekitaldia mantendu edo ez erabakitzeko galdeketa egin zuten urtarrilaren 26an, domekan, udalerriko osoko bilkuren aretoan. Galdeketa ez da loteslea izan, baina emaitzak konttan hartuko dituela jakinarazi du Udalak. Denera, 901 lagunek eman zuten euren iritzia, zentsuaren % 20 inguru. Horietatik 689k ezetz bozkatu zuten, eta 211k, aldiz, baietz. Kontuak hala, jaietan bigantxa-ekitaldiak egitea errefusatu dute gorliztarrek. Orain Udalaren txanda da, emaitzak eta parte-hartzea ikusita erabaki bat hartzeko ardura du eta.

Barrika Udal-politika

Aurrekontu berriak, hiru luzapenen ostean

Maiatzean EAJk lortutako gehiengo absolutuari esker, aurrekontu berriak izango ditu Barrikak 2020an, aurreko hiru urteetan luzatu ostean. Denera, 1.630.000 euro izango ditu Udalak urte honetarako.

UNAI BREA ▶

Barrikako Elexalde auzoa. CC BY SA-JAVIER MEDIAVILLA EZQUIBELA

Urtarrilaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zituzten aurrekontuak, EAJren bost zinegotzien aldeko botoakaz. Aurka bozkatu zuten EH Bilduren bik (koalizioak duen hirugarren zinegotzia ez zen bilkuran egon), eta iBarrika taldeak duen bakarra abstenitu egin zen.

Aurreikusitako jardueretatik, pilotalekua konpontzeko egitasmoa nabarmendu zuen udal-gobernuak; eraberritze orokorra egingo da, baita teilatua konpondu ere. Kultur arloan egingo diren inbertsioak azpimarratu zituen Roberto Muñoz alkateak: jaiak, II. Neandertrail lasterketa, euskarari zuzendutako laguntzak... Euskara sustatzeko 9.000 euroko inbertsioa egingo da, eta 6.000koa Barrikako kultur ondarea sustatzeko, Udalak jakinarazi zuenez.

HAINBAT INBERTSIO. Denera, 175.000 aurrekontu-saila dago inbertsioetarako. Hain zuzen ere, 80.000 euro bideratuko dira hondartzarako sarbideak konpontzeko (ikusi, beheko albistean, egun batzuk lehenago Amarratz Surf Taldeak horren ildotik egin zuen kritika), eta 10.000 inguru udaletxea bera eraberritzeko.

> Aurreikusitako jardueretatik, pilotalekua konpontzeko egitasmoa nabarmendu zuen udal-gobernuak.

Beste 12.000 euro informazio-euskarrietarako izango dira, iragarri denez. «Era berean, ezin ditugu ahaztu duela gutxi sortutako herritarrentzako komunikazio-euskarriak, esate baterako udal-aldizkaria, telefono bidezko inkestak, sare soziala...», gaineratu zuen Udalak prentsa-ohar baten bidez. ◀

Plentzia Ikasgelak

Positiboki baloratu dituzte

Urtarrilaren 4tik 24ra bitartean, Plentziako Udalak ikasgela bi egokitu ditu, bata Goñi Portalen eta bestea Topalekuan, ikasleek azterketak prestatzeko guneak izan ditzaten. Esperientzia pilotua izan da, EH Bilduk bultzatuta, eta Gobernu-taldea (EAJ) pozik agertu da ekimenak izan duen harrera «onagatik». Denera, 224 lagunek erabili dituzte ikasgela horiek; aste-akabuetan izan da jende gehien horietan eta egun batzuetan Goñi Portaleko goiko solairua egokitu behar izan dute. «Datuak eta erabiltzaileek erakutsitako asebetetze.maila ikusita, hurrengo azterketa-deialdirako esperientzia errepikatu egingo dugu», ziurtatu du Elixabete Uribarri Plentziako alkateak.

Barrika Surflarien kritika

Flyscha adierazteko seinaleakaz haserre

UNAI BREA ▶

Barrikako flyschera ailegatzeko bidea adierazten duten seinaleak paratu dituztela eta, idatzi bat zabaldu zuen bertako Amarratz Surf Taldeak urtarrileko azken egunetan, bere Facebook kontuaren bitartez. «Ez dugu sinesten eta ez dugu inoiz sinetsiko turismo-eredu absurdo eta sostengaezin honetan; inork batere zaintzen ez duen zerbait sustatu nahi dute», adierazi zuen elkarteko presidente Niko Vázquez López de Guereñuk sinatutako testuan.

Gaztelugatxe gogoan

Ingurua «irizpiderik gabe» sustatu gura izatea leporatu zion Amarratzek Udalari. «Guk ere neurriak hartuko ditugu», iragarri zuten, «bat egiten dugu Gaztelugatxen gertatzen denarekin».

Flyschera ailegatzeko bidea seinalez adieraztea «absurdoa da guretzat, surflariak garen heinean Barrikako ohiko erabiltzaileak garenontzat», esan zuten. Izan ere, azpimarratu zuten hondartzara jaisteko eskailerak egoera negargarrian daudela, eta behin baino gehiagotan eman diotela horren berri Udalari, hark erantzun barik. Handik egun gutxira eskailera horiek konpontzeko 80.000 euroko aurrekontua onartu zuen osoko bilkurak (ikusi goiko albistea).

Amarratz Taldeak gaineratu zuen borrokatuko dutela «ingurua errespetatzen duen turismo-eredu jasangarriaren alde». ◀

Uribe Kosta U30 Greba Orokorra

Bizitza erdigunera ekarri guran

Apurka-apurka, joan den urtarrialaren 30eko grebak nabarmen egin zuen gora Uribe Kostako herrietan. Goizaldeko piketeek grebalari asko bildu ez zituzten arren, eguna aurrera joan ahala pixkanaka ehunka lagun batu zitzaizkien eguerdiko Bilboko manifestazioan kaleak lepo betetzeko. Arrastian, aldiz, herrien txanda heldu zen, eta goizeko uholdeari jarraiki, eskualdeko herrietan ozen entzun ahal izan zen gizarte berri bat eraikitzeko aldarria, bizitza erdigunean kokatzen duen mugimendu bat osatuz.

Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

Honek kezkatzen nau gehien. Eta zu?

Aurreko batean erlatiboaren eta zehar-galderen arteko ezberdintasunaz aritu ginen. Eta oraingo honetan erlatiboaren beste erabilera oker bat ekarri nahi dut hona. Alferrikako erlatiboa, alegia. Erdarei segika esaldi oso luzeak egiteko joera izaten dugu batzuetan, baina euskaraz badira bestelako aukerak.

Atal honetan askotan adierazi bezala, erdarek eragina izaten dute euskaraz hartzen ditugun erabakien gainean, ideiak adierazi eta zehaztu nahi ditugunean. Eta horren adierazgarri argia da erlatiboa. Askotan pentsatu dugu (edo pentsarazi digute) zenbat eta esaldi luzeagoak idatzi, orduan eta hobeto ezagutzen eta maneiatzen dugula gure hizkuntza. Jakina da zeinen zaila den gaztelaniazko erlatibozko perpaus luzeak euskaraz ematea, eta tematuta ibili gara estilo berari jarraituta itzultzen. Sarri, gainera, pentsatu izan da hizkuntzaren zailtasun hori urritasuna dela. Ez da horrela. Hainbatetan esan dugu hizkuntza aberatsa dugula, eta euskarak baditu bide egokiak eta nahikoak edozein informazio taxuz emateko, hizkuntza makurtzen eta okertzen ibili gabe.

Ikus dezagun adibideen bidez zertaz ari naizen. Erdarak oso gustuko, berezko eta funtzionala du erlatiboa, hau da, esaldiak gehiegi korapilatu gabe harilkatzen dira mezua osatzen duten ekintzak eta sekuentziak. Honatx: *La chica que vive en el caserío que tiene la puerta roja hecha de hierro*. Gaztelaniaren egiturari itsu-itsuan jarraitzen badiogu, hau ateratzen da: *Burdinaz egindako ate gorria duen baserrian bizi den neska*.

Zer gertatzen da horrelakoetan? Bada, garrantzia duen elementua (neska) euskaraz oso atzean geratzen zaigula, gaztelaniaz ez bezala, eta euskal hiztunak zailtasunak izango dituela mezu osoa gordetzeko edo ulertzeko.

Hori horrela, euskarak berezko dituen beste bide ugariak bilatu behar ditugu, egon badaude eta. Hona hemen batzuk.

Esaldi soilak erabili, eta ez erlatibodunak, askotan korapilatu besterik ez dute-eta egiten, informazio berririk eman gabe. *Eso es lo que preocupa a los jóvenes*. Itzulpenik ohikoena hau izaten da: **Hori da gazteak kezkatzen dituena*. Baina esaldi soila erabilita berdin-berdin eman dezakegu informazioa itzulinguruka ibili barik: *Horrek kezkatzen ditu gazteak*.

Beste aukera bat izenlagunak erabiltzea da, -EN eta -KO bereziki. *Las entidades que integran la administración local*... Itzulpenik ohikoena: **Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak*. Izenlaguna erabilita, aldiz, erraz asko ekidin daiteke alferrikako erlatiboa: *Toki-administrazioko erakundeak*...

> Jakina da zeinen zaila den gaztelaniazko erlatibozko perpaus luzeak euskaraz emateak, eta tematuta ibili gara estilo berari jarraituta itzultzen. Sarri, gainera, pentsatu izan da hizkuntzaren zailtasun hori urritasuna dela. Ez da horrela.

Galderetan ere, aukeran, egokiagoa izaten da erlatiborik gabeko bidea, lehenago agertuko baita galderako gako-hitza: **Zein da Nerearen etxetik okindegira dagoen distantzia?* Begira erlatiboa kenduta zelan aurreratzen dugun informazio garrantzitsua: *Zein distantzia dago Nerearen etxetik okindegira?*

Batzuetan, halaber, adjektiboa bera nahikoa izaten da, erlatiboa sartu beharrik gabe. Esaterako: **Badira gaitz batzuk kutsagarriak direnak*. Esan bezala, nahikoa da adjektiboa bera: *Gaitz batzuk kutsagarriak dira*.

Ikusten denez, ia beti aurkitzen da moduren bat esaldia beste era batean antolatzeko: nahikoa da apur bat pentsatzea, aukera hobeak aurkitzeko. A! Ez kezkatu joskera aldatzen bada, gehien-gehienetan itzulitakoa bezain praktikoa izango baita.

Amaitzeko, adibide esanguratsu bat erakutsi nahi dizuet. Ipuin asko horrela egon ohi da itzulita: *Érase una vez un hombre que vivía en lo alto de un monte en una casa hecha de piedra del monte Ereño donde los primitivos habitantes de Santimamiñe se divertían levantando piedras*. Egituraz egitura itzuliko bagenu, emaitza hau lortuko genuke: **Bazen behin mendi baten gainean Santimamiñeko lehen biztanleek harria jasotzen jolasten ziren Ereño menditik ekarritako harriekin eginiko etxe batean bizi zen gizon bat*. Zuzena bai, oso; baina nork jarraituko lioke ipuin horri? Ume askok alde egingo ligukete, seguru!

Beraz, ezin da ipuin hori euskaraz eman? Jakina! Baina betidanik euskaraz kontatu diren moduan: juntadura sarriago eta mendeko perpausak gutxiago erabilita. Hau da, euskararen izaera errespetatuta: *Bazen behin gizon bat, mendian bizi zena, etxe txiki batean. Etxea harrizkoa zen, Ereñuko harriez egina. Bada, Ereñon bertan jolasten ziren harria jasotzen Santimamiñeko lehen biztanleak*.

Horrela arrakasta handiagoa lortuko dugu, ez duzue uste? ◂

Gatzo-ozpinetan Izei Azkue

Ahuakatea, lagun min ala etsai?

Ahuakatea gero eta leku handiagoa hartzen ari da gure elikaduran. Egia da gehienok modu berdinean erabiltzen dugula, baina sukaldaritzan askotariko erabilerak eman diezazkiokegu fruitu horri. Gainera, haren propietateak osasunerako oso onuragarriak izan daitezke.

Azido foliko kantitate handia izanda haurdun dauden emakumeentzat lagungarria da ahuakatea umekiaren eraketa-prozesurako, kolesterola murrizten laguntzen du eta dituen koipe osasungarriei eta E bitamina-kantitateari esker bihotzerako oso onuragarria ere bada. Ahuakateak asetasun handia ematen digu, eta honenbestez pisua jaisteko aliatu bikaina da. Hori hala izateko beste arrazoi bat da beste fruitu eta barazkiek eskaintzen dizkiguten nutrienteak xurgatzen laguntzen digula. Horrez gainera, antibiotiko natural bikaina eta antioxidatzaile indartsua da, eta burmuin-funtzioa hobetzen du. Askotan egure ezaugarri fisikoak hobetzeko ere erabiltzen da; kosmetikan, gero eta gehiago. Berbarako, ile distiratsuagoa lortzeko erabiltzen da, fruituak duen koipe naturalari esker; eta era berean, zelulitisa ekiditeko hainbat krema egiten dira fruituaren hazia erabilita, besteak beste.

Garestia izan arren, asko erabiltzen da gure inguruan osasunerako dituen propietateak direla eta; esate baterako, askok gosaria prestatzeko orduan ahuakatea lagun min daukate, eta eguneroko elikagaia dute. Nire kasuan, zorte handia izan dut sukaldaritzan hasi nintzenean nazioarteko jatetxe bitan lanean egoteagatik eta ahuakatea oinarrizko elikagaietako bat zelako. Horren arira, ahuakatearekin egindako hainbat errezeta aurkeztuko dizkizuet lerrootan. Goazen bada!

IZOKIN- ETA AHUAKATE-TARTARA. Tartara hau egiteko kantitateak norberaren gustura erabiliko ditugu. Hala ere, eta logikoa den moduan, izokina eta ahuakatea osagai nagusiak izango dira. Kubo txikitan ebakiko ditugu eta bol bat erabiliko dugu nahasketa egiteko. Tomateari dagokionez, gomendatzen dut haren haragia erabiltzea soilik, haziak alde batera utzita; baina adi! Ez bota horiek, beste gauza askotarako erabili baititzakegu, gosaltzeko *pan tumaca* egiteko, adibidez. Tipula *brunoise* eran ebakiko dugu; hau da, kubotxo txikitan. Orduan, bolean osagai guztiak nahastuko ditugu azenarioak eta etxilarrak izan ezik.

Osagaiak

Arrautza beteak
Ahuakateak, menda, hegaluze-lata, oliba-olioa, limoi-zukua eta arrautza egosiak.

Izokin- eta ahuakate-tartara
Ahuakatea, izokina, tomatea, tipula gorria, *perrins* saltsa, martorria, anakardoak, soja, ozpinetako luzokerra, limoi-zukua, kaparrondoak, azenarioak, etxilarrak, sesamo-olioa eta oliba-olioa.

Guacamolea
Ahuakateak, martorria, tomatea, tipula gorria, lima-zukua, ozpina, oliba-olioa eta gatza.

Ahuakate betea
Ahuakateak, tomatea hazirik gabe, tipula gorria, lima-zukua, arrain hegalariaren arrabak, otarrainxka egosiak, feta gazta eta oliba-olioa.

Kontuz *perrins* saltsa, soja eta sesamo olioarekin, horiek zapore handia daukate eta, batez ere sesamo olioak zapore biziegia du; hala, pare bat tanta bota, besterik ez. Guztia txikituta eta bolean nahasita dugunean, molde baten laguntzarekin platerean aurkeztuko dugu. Azenarioekin eta tipula gorriarekin *crudites* bat egingo dugu, tira oso finetan moztuta, eta tartara apaintzeko erabiliko dugu. Azkenik- oliba-olio pixkarekin distira-kolpe bat emango diogu.

GUACAMOLEA. Guacamolea egiteko, lehenik eta behin ahuakateak zanpatuko ditugu. Zanpatuta ditugula, martorri txikitua, lima-zukua, ozpin pixka bat (zenbat eta lima-zuku gehiago, orduan eta ozpin gutxiago beharko dugu,) oliba-olioa eta gatza botako ditugu; nahasketa dastatuz joango gara gustura egon arte. Nahasketa eginda dugula, *brunoise* eran ebakitako tipula eta tomateak gehituko ditugu. Tomatea aurreko errezetan bezala botako dugu, hazirik gabe.

AHUAKATE BETEA. Ahuakateak hustu eta kubotan ebakiko ditugu, baita otarrainxkak, gazta eta tomateak ere. Tipula *brunoise* eran ebaki eta guztia nahastuko dugu. Ondoren, nahasketari lima-zukua, oliba-olioa eta gatza nahi eran botako diogu. Amaitzeko, ahuakate hustuak nahasketarekin beteko ditugu, eta kito. Apaintzeko eta ukitu kurruskaria emateko, arrain hegalariaren arrabak ipiniko ditugu gainean.

ARRAUTZA BETEAK. Arrautza egosiak erditik ebaki eta gorringoa kenduko diegu nahasketarako lekua utzita. Bol batean osagai guztiak botako ditugu eta birringailu baten laguntzarekin dena txikituko dugu (pare bat gorringo gordeko dugu arrautzak apaintzeko). Nahasketa amaituta dugula, arrautzak bete eta menda zati batzuekin eta gorringo marratuarekin apainduko dugu; kontuz menda-kantitatearekin, gutxika bota eta dastatzen joan zuen gustukoa izan arte. On egin! ◂

Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Murgildu gauean, haren soinuez gozatzeko

Udaberria hurbiltzen ari da, eta harekin batera urtaroen zikloko sasoi argitsua. Landareak loratu egiten dira, eta argiari agur egin eta egunari ekiten dioten txorien kantuek betetzen dute egunsentia. Beste animalia batzuk, berriz, argia joan eta iluntzen duenean hasten dira jardunean.

Gauak iluntasuna ekartzen dio naturari eta, ikusmena ez ezik, beste zentzumen batzuek garrantzia hartzen dute. Iluntasunean soinuek espazioan barrena bidaiatzen dute, eta gure entzumenak jaso eta gaueko bizimodura hurbiltzen gaitu.

Animalia batzuk ilunpean bizitzeko egokitu dira, eta gainera isiltasunaz baliatzen dira ozen adierazteko zeintzuk diren euren eremuen mugak. Lurraldeari edo ugalketari lotutako kantu horiek bereziki deigarri suertatzen zaizkigu gauez basoan edo landan bagabiltza. Horretaz pentsatuz gero, burura etortzen zaizkigun gauaren lehenengo biztanleak hontzak izaten dira, euren buru handi bitxi eta begi handi deigarri eta guzti. Uribe Kostan sei hontz-espezie beha ditzakegu, eta horietatik lau hemen ugaltzen dira.

Zaratatsuena, eta lurralde jakin batekin lotura estuena duena, urubia da, ulu triste eta bitxia egiten duena, arren kasuan «uhuu hu hu hu uhuuhuu» itzul genezakeena, eta emeenean «ku-uiik». Urubiak, bizitzeko, basoak nahi izaten ditu, eta horietako zuhaitz zaharren zuloetan hazten ditu kumeak, baina baliteke hirietako parkeetara eta landa-eremuetara ere joatea. Urte osoan entzun dakioke, baina batez ere urtarril eta martxo artean, ugaltze-sasoian, baita abuztu-irailetan ere, gaztetxoek habiatik alde egiten dutenean.

Ezagutu ezean ikara gaitzakeen beste soinu bat hontz zuriak egindakoa da. Kirrinka edo txistu antzekoa da, indartsua, normalean bere lurraldearen barruan hegan dabilenean egiten duena. Urte osoan entzun dezakegu hontz zuria, baina gehienbat apirilean eta maiatzean, lantzarretan, landa-eremuetan eta hiri-parkeetan. Baserri zaharretako eta elizetako teilatuetan eta korta zaharretan gordetzen du bere burua.

Uribe Kostan entzun ditzakegun beste hontz-mota biak txikiak dira, eta batez ere intsektuak eta sagu txikiak jaten dituzte. Mozoloa ugaria izaten zen lantzarretan, baina gainbehera egin du nabarmen. Haren soinuak katuarena gogorarazten du; labarren ingurua ona da ekainean eta uztailean, haizerik gabeko iluntzeetan, entzuteko.

CC BY SA-STEVIE B

Hontz zuria

Tyto alba

Ezagutu ezean ikara gaitzakeen soinua egiten du hontz zuriak. Kirrinka edo txistu antzekoa da, indartsuam normalean bere lurraldearen barruan hegaka dabilela egiten duena. Urte osoan entzun dezakegu, baina gehienbat apirilean eta maiatzean.

Apo-hontza da txikiena. Negua Afrikan ematen du, eta udaberrian etortzen da, ugaltzera. Martxoan ailegatzen denetik udagoienean joaten den arte, ohikoa da haren flauta-doinuzko kantu errepikakorra hiri-parkeetan eta landa-inguruetan aditzea. Haren «tiuuu» soinuak txantxiku-apoarenaren antza du (hortik datorkio izena), baina erregularragoa da.

Zata arrunta da gure zelaietan gauez sarritan entzungo duzun beste hegazti bat. Udatiarra hori ere, udaberrian itzultzen da, eta ohikoa da gauez errepideen asfaltoaren gainean zutunik ikustea. Soinua «rrrrr-rrrrrr-rrrrrr» urruma monotonoa du, notaz aldatuz joaten dena. Hegaka dabilela zein geldi eman dezake, eta zuhaiztien ertzetan entzun ohi da. Eta batere ohikoa ez bada ere, azken galeper ugalkorren «pox-po-lin» kantu errimikoa entzun dezakegu oraindik gure sega-belardietan.

Putzu eta hezeguneetatik hurbil, igel- eta apo-abesbatzak entzun daitezke oraindik. Gero eta urriagoak dira, lehortzeagatik eta uraren kutsaduragatik, baina orain dela gutxira arte igel berdeek burrunba ozena egiten zuten batzuetan, oso kopuru handietan elkartuta. Apiriletik ekainera kantatzen dute.

Oraindik, ahaztutako zenbait bazter-txokotan, udako gau bero eta hezeetan, zuhaitz-igel arruntei entzun dakieke, hain berezkoa duten kantu errepikakorra eginez. Espezie horri inguruan belar eta zuhaixka asko duten putzuak gustatzen zaizkio. Apo lasterkariak, aldiz, nahiago ditu itsasertzeko dunak, eta Gorrondatxeko hondartzan du Bizkaiko bere azken gotorlekua. Haren koruak arrek egiten dituzte uretatik, emeak erakartzeko, ilundu ostean. Martxotik aurrera entzun daiteke haien estrofa latz, luze eta errepikakorra.

Gauak harritu egingo gaitu etengabe. Beldurrik gabe murgildu eta goza dezagun haren soinuez. Bide batez, argiztatutako parkeetan gero eta sarriago entzun daiteke kale-argiengatik nahastuta dabiltzan txantxangorrien eta zozoen kantua. ◂

Izena duen guztia omen da Aritza Bergara

Euskal mitologiaren bidaia hastera doa!

Ene! Azkenean arbasoen, aztien, sakratuen, Euskal Herriko jainkoen munduaz interesa agertu du norbaitek. Mitologiari buruz gehiago jakin nahi duzue? Jainkoak eta mitologiaren parte diren beste izakiak ezagutu nahi dituzue? Bada, hauxe da zuen lekua; has dadila bidaia.

Batzuek gogoratuko nauzue, *UK* aldizkarian «Jentilen aztarnen atzetik» atala idazten nuelako. Besteei HIRUKAko kolaboratzaile berria izango naizela esango dizuet, atal berri bat sortuz. Eta gure txokoa izango den honetan euskal mitologiaz arituko gara, aspaldi egiten nuen moduan. Aurrekoan pertsonaiak ezagutu genituen; orain, aldiz, beraiei buruzko kondairak irakurri ahal izango ditugu. Hori bai, lehenengo artikulu honetan gure mitologiaren ezaugarriak aipatu nahi nituzke.

ZER DA EUSKAL MITOLOGIA. Euskal Herriak, Pirinioen bi magaletan antzinatik bizi izan den herriak, Europa Zaharreko beste herri eta gizatalde guztien aldean, nortasuna eman dioten berezko ezaugarriei eutsi die betidanik. Gizakiek beren kultura ikasi eta aztertzeari ekiten diote berau kolokan, arriskuan, desagertzeko zorian dagoenean, kultura nagusien eraginez galdu edo nahastear dagoenean, XIX. mendearen bukaeran Euskal Herriaren kasuan.

Joxe Miel Barandiaranek, Azkuek eta maila bereko hainbat antropologok ipuin mitologikoak jaso, bildu, ikertu eta aztertu dituzte, baita horiek desagertzetik gorde ere. Euskal Herriak, itzal handiko jakintsuon ekinari esker, geure arbasoengandik datorkigun aberastasun horri eutsi dio; herriaren gogoan dirauen aberastasuna.

Eta gaiarekin hasteko, betiko galdera planteatu behar da: zer da mitologia? Nire garaian, arlo honetaz interesatzen hasi nintzenean, hiztegietara jo nuen erantzunaren bila. Eta hauxe izan zen topatu nuen erantzuna: «Herri edo kultura konkretu batek duen mitoen multzoa». Hori bai erantzun zuzena, ezta? Baina orduan, zer da mitoa? Adituek esaten dutenez, kondaira sinbolikoa, munduaren hasierako edo denbora historikotik kanpoko gertakari harrigarriren baten berri ematen duena. Mundua nola sortu zen azaltzen dute, pertsonaien bitartez edo hainbat sinesmenez. Eta Euskal Mitologiari buruz hitz egiten dugunean, horrek erakusten digu euskaldunok nola ulertzen zuten mundua, zeintzuk ziren lurr honetan bizitzen zirenentzako pertsonaiak eta zer nolako fenomenoak azaltzen zituzten pertsonaia bakoitzarekin. Gaur egungo gazte batzuen iritziz, mundu globalizatu honetan mitoek ez dute ezertarako balio, historiaurreko sinesmenak baino ez dira. Dena den, gauza guztiak bezala, erantzuna ez da hain erraza. Gure arbasoen sinesmenek, ohiturek, esanek... gaur egun daukagun mundua ulertzeko laguntzen digute. Eta, ze demontre! Nori ez zaio gustatzen edonoiz, mendiko aterpe batean gaudenean, suaren inguruan eserita, antzinako gertakari baten historiatxo bat entzutea?

© ORRITZ ELKARTEA

Euskal mitologiaren pertsonaiak

Jainkoak eta euskal mitologiaren parte diren beste izakien inguruan berba egiteko artikulu-sorta idatziko du Aritza Bergarak, «azkenean guri, kondairan zehar herriko jakintzaren gordelarioi, dagokigu kontatzea mundu magiko honi buruzko egia, entzun nahi dutenei».

GURE MITOLOGIAREN EZAUGARRI NAGUSIAK. Herri zaharren arteko trukaketa betidanik existitu da, hainbat arlotan, baita sinesmenen edo mitoen atalean ere. Hori dela eta, mitologia ezberdinetan antzeko ezaugarriak topa ditzakegu. Baina azaletik sakontasunerantz joaten garenean, ezberdintasun ugari agertzen dira. Gure kasuan, lau baino ez ditut aipatuko, niretzat azpimarragarrienak direlako. Hasteko, euskal mitologiaren jainko nagusia emakume bat da: Mari. Beste mitologietan, ordea, ez da horrela gertatzen, hala nola Jupiter, Zeus, Manitú gizonezkoak izan ohi dira nagusiak. Bestetik, euskaldunon mitologian izaki magiko horiek gure artean bizi dira, ez Olinpoan edo zeruan. Gure inguruan aurki zitezkeen, hala nola kobazuloetan, urrun zeuden basoetan... Era berean, kondairak eta jakinduria herrikoia belaunaldiz belaunaldi igaro da, ahoz aho, idatzi gabe, XX. mendea ailegatu arte. Idatzitako lehenengo datuak bisitariek jaso zituzten eta, geroxeago, hainbat ikerlarik; Barandiaran, Baroja, Azkue eta Satrustegi, besteak beste. Horiek abiatu ziren hasiera batean eta haien lanekin jarraitu zuten beste batzuek gero: Juan Manuel Etxebarriak eta Jose Duesok. Amaitzeko, bertoko ohiturak eta mitoak paganoak dira, kristautasuna ailegatu baino lehenagokoak; handik aurrera, sinesmen berriekin batera nahastuta agertzen dira askotan. ◂

Santa Maria Magdalena eliza (Plentzia).

Uribe Kostako iraganaren aztarna isilak

Askotan ez gara ohartzen, baina ondare arkitektoniko oparoa dugu Uribe Kostan. Herriz herri, askotariko azpiegiturak topa ditzakegu, gure iraganaren lekukoak direnak: baserriak, errotak, dorretxeak, industria-garaiko burdinazko zubiak eta gerrarik ikusi ez duten bunkerrak, besteak beste. Altxa begiak eta inguruari begiratu besterik ez duzu behar; horren lagin txiki bat jaso dugu orriotan.

TESTUA: **UNAI BREA · IKER RINCON MORENO** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES**

Garramuñe baserria (Barrika).

Udondoko zubia (Leioa).



Bizkaia Zubia (Getxo).

Burdin Hesiko bunkerra (Sopela).

Kristo eliza (Plentzia).

Martiartu dorretxea (Erandio).

Urizar garbitegia (Lemoiz).

Aixerrota (Getxo).

Errotazahar (Leioa).

Andra Mari eliza (Erandio).

Hilerria (Berango).

Torrebarri (Urduliz).

Santa Ana baseliza (Berango).

Askorriaga gotorlekua, «Castillito» (Gorliz).

Errotatxu (Urduliz).

Elorduy zaharren egoitza (Barrika).

Palacio baserria (Lemoiz).

Zabalerrota (Gorliz).

Ander Deuna baseliza (Sopela).

Ionan Marigomez Allende Plentziako Itsas Estazioko zuzendaria

«Oso gutxi dakigu itsasoaz»

Altzagako arrantza-lantegi batean 1961ean jaio zen Ionan Marigomez («oso erandioztarra naiz»), eta 1992ra joan zen Plentziara bizitzen. Azken urte bietan, berriz, Gorlizen du etxea, lantokitik oso hurbil betiere. Biologoa lanbidez eta bokazioz, EHUren Plentziako Itsas Estazioko (PiE) zuzendaria da gaur egun, 2013an lanean hasi zenetik, eta esan liteke estazioa existitzearen arrazoi nagusietako bat beraren burugogorkeria dela.

TESTUAK: **UNAI BREA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Galdera gordin bat eginez has gaitezen: pikutara doa itsasoa? Pikutara doan? Tamalez oso baikorra naiz, beti alde positiboa ikusten dut eta irtenbideen bila nabil. Alde horretatik agian ez naiz oso koherentea, baina nire irudipena da itsasoa ez doala pikutara beste guztia baino azkarrago. Askotan galdetzen didate hemengo inguruko itsasoa nola dagoen, eta nire erantzuna da seguruenik pentsatzen duguna baino askoz hobeto dagoela, eta gustatuko litzaidakeena baino askoz okerrago. Kasurik txarrenean, itsasoa baino lehenago gu desagertuko gara.

Bai, itsasoak iraun egingo du, baina haren barruko bizitzak? Baita ere. Zatirik ahulena gizakia da; kontrakoa pentsatzen badugu ere, natura zaindu nahi dugula diogunean, benetan gure biziraupena da babestu nahi duguna. Gu gabe beste gauza guztiek jarraituko lukete, beste modu batera.

Lasaiago... Ala ez, auskalo zer munstro etorriko den gero! Suntsipen orokor asko egon da historian, eta lehenengoetakoa, duela milaka milioi urte, oxigenoa agertzeagatik gertatu zen. Oxigenoa pozoia da, horregatik erabiltzen dugu ur oxigenatua zauriak sendatzeko, oxigenoak dena erretzen du, dena akabatzen du. Hasierako mundu horretan zeuden izaki bizidun gehienek ezin zuten oxigenoa hartu, baina Lurraren azalean zianobakterioak nagusi izan zirenean, euren metabolismoaren hondakina oxigenoa denez, planeta gas horrekin betetzen hasi zen, eta horrek bi ondorio izan zituen: bata, ozono-geruza indartu zela [hiru oxigeno-atomoz osatutako molekula da ozonoa], beraz izpi ultramore gutxiago heldu zen, mutazio gutxiago gertatu zen, eta aniztasuna murriztu zen; hau da, oxigenoak biodibertsitatearen «kontra» jo zuen. Beste alde batetik, izaki gehienak desagertu ziren, oxigenoaz baliatzeko gaitasuna zutenak izan ezik, alegia, gaur egungo aerobioak, gu geu. Beste guztia desagertu egin da, edo leku berezietan geratu da: ur termaletan, Yellowstoneko sulfurozko putzu horietan...

Eraistetik salbatutako eraikina

Mende laurden baino gehiago daroa Ionan Marigomez Itsas Estazioa dagoen lekutik oso hurbil bizitzen, eta aspaldi zuen eraikina begiz jota. Erietxe txikia zen Marigomezek ezagutu zuenean, BBK zen (eta da) haren ugazaba, eta eraistea zen haren patua, Gorlizko badiarako idatzita zeuden planen arabera. Besteak beste EHUgaz eta Plentziako Udalagaz egindako gestioei esker, planak aldarazi zituen gaur egun PiEko zuzendaria denak. Gaur egun, BBK-k Plentziako Udalari utzia dio eraikina, baldin eta EHUk erabiltzen badu. Hala ez balitz, BBKren altzora itzuliko litzateke antzinako erietxea.

Kontuak kontu, agertoki honetan egokitu zaigun tarte laburrean itsas estazioak eta halakoak egiteari ekin diogu. Plentziako hau eta beste denak sortzeko arrazoia itsasoa pikutara joatea da? Bitxia da, baina zergatia oporrak dira. Lehenengo itsas estazioak XIX. mendearen bukaeran sortu ziren; kontua hartu behar dugu, biologia XIX. mendearen hasieran garatu zela, ordura arte fisikaren zati bat zen, eta horrekin batera sortu zen naturalismoa. Unibertsitateetan esperimentuak ingurua zutenarekin egiten zituzten: igelak, txakurrak... Askotan ikerlariak leku beroetara joaten ziren oporrak hartzeko, edo liburuak idazteko. Eta oker ez banago, Europako lehenengo itsas estazioa Napolin (Italia) sortu zen; zientzialariak hara joaten ziren uda pasatzera, eta familia hondartzan zegoen bitartean lanean jarraitzeko sortu zuten estazio bat. Orduan, katuak, igelak eta halakoak aztertzetik, itsasoko animaliak aztertzera igaro ziren. Horrek mundu berria zabaldu zuen, eta mundu berri horretatik etorri dira aurkikuntza asko.

Eta PiEren sorrera, zelakoa izan zen? Estazio hau unibertsitate publikoaren behar batetik dator. EHUn hasieratik egin dira itsasoarekin lotutako ikerketak, ez kutsatuta zegoelako bakarrik, baita esploratzeko ere, baliabideak bilatzeko... Baina arazo bat genuen: unibertsitateak ez zuen honelako instalazio-

rik itsasotik gertu, eta behar du. Leioako campusean hainbat akuario egin ditugu, lehenengoa armairu handi bat zen. Eta oraindik daude akuarioak han. Baina ura garraiatu egin behar da eta esperimentuak animaliak mantentzeko baldin badira... Ura birzikla dezakezu, baina guk, adibidez, toxikologia-esperimentuak egiten ditugu, ura zikindu behar duzu, eta abar. Gero iragazi egin daiteke, baina ez du kalitaterik izango berriro erabiltzeko. Asko erabiltzen denez, horren menpe geunden. Oker ez banago, 25.000 litroko biltegia geneukan, eta kamioi bat etorri behar zen betetzera. Horrek mugatu egiten du esperimentuen iraupena, normalean egun gutxikoak egiten genituen. Zer tamainatako izakiekin lan egin dezakezun ere mugatzen du. Arazo horrekin hogei urte inguru egon ginen, itsasoaren ondoan leku baten bila.

Eta zergatik hemen? Zerikusia du zu hemen bizitzeak? Gure ikerketetan, urte askoan zehar, oso ondo ezagutu dugu kostaldea nola dagoen. Kutsadurari begira, leku hau nahiko garbia da. Eta gainera estrategikoki ondo kokatuta dago. Campusetik gertu, aireportutik ere bai, metroz Bilborekin lotuta. Eta eraikin hau zegoen: ia erabili gabe zegoen erietxe txiki bat. Baldintza guztiek bat egiten zuten, eta pozik gaude aukerarekin, ura benetan egoera onean dagoelako, instalazioak ondo funtzionatzen du, udan 300.000 litro ur mugitzen ditugu egunero, animalia handiak eduki ditzakegu.... Beste aukerarik ez zegoen, egia esateko: Urdaibai, kalitate aldetik, berdintsua izango zen, baina urrun dago. Eta han ez zegoen eraikin egoki bat «hain itsasoan» dagoena. Honek badu xarma. Eta horrez guztiaz gainera, bada, egia da, bai, ni hemen bizi nintzela...

A, ba erdi txantetakoa izan da galdera. Hara, ni paseoan ibiltzen nintzen hemendik egunero, eta honi begira-begira egoten nintzen... Inflexio-puntua 2000. urtea izan zen: AEBetan egon nintzen, urte sabatikoan, munduko zentro ozeanografikorik famatuenean, La Jollan, Kalifornian. Han nengoela bete ziren ehun urte ireki zutela. Oso bero etorri nintzen handik. Hau erdi utzita zegoen, adineko lau pertsona zeuden, Barrikatik oporrak pasatzera ekartzen zituztenak. Eta Plentziako alkatearengana jo nuen (ez nuen ezagutzen): «Aizu, tontakeria bat iruditu zaizu, baina zer iruditu litzaizuke hau izatea unibertsitateko ikerketa-zentro bat?». Eta hark: «Bai!». Sasoi hartan badiarako plana egiten zebiltzan, eta horren barruan eraikin hau botatzeko asmoa zegoen.

Baina estazioa funtzionatzen hasi baino dozena inguru urte lehenago jazo zen kontatzen zabiltzana. Iraun zizun, bai, beroaldiak. Burugogorra naiz. Ordutik estazioa inauguratu bitartean gauza asko gertatu ziren, proiektua bertan behera geratu zen eta atzera berpiztu... EHUk hasieran ez zuen bultzatu nahi izan, gero bai; BBK-k kontrara, lehenengo bai eta gero ez. Horrela urte batzuk. Eta azkenik dirua lortu eta egokitzapena egiten hasi ginenean, hainbat arazo sortu ziren, batzuk eraikinaren kontserbazioarekin lotuta, beste batzuk itsasoko ura lortzearekin lotuta.

Bertan dago eta... Bai, baina guk hartu nahi genuen lekuko urak ez zuen balio. Izan ere, hondartzako harearen azpitik hartu nahi genuen, eta hara non akuifero erraldoia dagoen hor; ura geza da, edo ia geza. Bilatzen hasi ginen eta lagin bakoitza jaso eta aztertzeko ia hilabete ematen genuen, ur-bilatzaile bat eta guzti ibili zen hemen. Azkenean itsasadarrean aurkitu genuen lagin ona, eta gaur egun handik ateratzen dugu ura. Bi urte hartu zigun kontuak.

Zer gaitz du gaur egun itsasoak? Asko ditu, baina oinarrian dagoena da gizakiok gero eta gehiago garela, gero eta hobeto bizi garela, eta gero eta «garestiagoak» garela Lurrarentzat. Askotan esaten da «baina jaiotze-tasa txikitzen ari da»; bai, baina luzeago bizi gara, beraz... Bestalde, garai batean munduan batzuk oso ondo bizi ginen eta beste batzuk ez hain ondo, baina pixkanaka, nahiz eta albisteetan kontrakoa eman asko-

Ionan Marigomez, algakaz lan egiten den Plentziako Itsas Estazioko laborategietako batean.

Meatzeak itsaspean

«Gaur egungo mehatxu nagusietakoa itsas azpiko meatzeak dira; sekulako inpaktua duten jarduerak egiten ari dira»

Ezagutza-falta

«Ilargiaz itsasoaz baino gehiago dakigula esatea ez da topikoa. Asko ikertzen da itsasoaz, bina behin eta berriro gauza berari buruz»

Itsas faunaren ajeak

«Ez dago guztiz frogatuta baina gero eta ebidentzia gehiago dago: itsasoko organismo gehienak gero eta txikiagoak dira»

tan (eta hala da), gero eta jende gehiago bizi da hobeto. Eta baliabideak murritzak dira. Hori da arazo nagusietako bat, baliabideak ez baditugu behar bezala ustiatzen...

Arrantzaz ari zara, zehazki? Ez bakarrik. Adibidez, gaur egungo mehatxu nagusietako bat itsas azpiko meatzeak dira. Lehorrekoak agortu dira eta... Sekulako inpaktua duten jarduerak ari dira egiten itsas azpian. Horrek beste galdera bat dakar: itsasoa zer da? Guretzat itsasoa beti izan da ikusten duguna, eta legalki 200 milia kostaldetik. Baina norena da 1.000 miliara dagoena? Hortxe daude baliabideak, eta horrek beste eztabaida batzuk sortzen ditu. Gatazka berriak egongo dira. Oro har, esango nuke itsasoaren gaitza baliabideak murriztea dela; ez baditugu behar bezala kudeatzen, arazo bat izango dugu. Asko ikasi behar dugu kudeaketaz, gauza asko botatzen dugu alferrik eta seguruenik etekin handiagoa atera beharko genieke horiei. Itsasoa txerri bat dela pentsatu beharko genuke, dena aprobetxatzen dela. Adibidez, kutsadurari dagokionez, esango nuke gure inguruan nahiko hobetu garela, horrek esan nahi du beste leku batzuetan okertu egin dela. Hemen botatzen ez dena beste leku batean botatzen da. Baina gauzak gero eta garbiago, txukunago egiten dira, kontrol handiagoa dago, eta kontzientzia handiagoa.

Mundu osoan? Oro har baietz esango nuke. Noski, beste behar batzuk dituzunean, azken lehentasuna da hori. Gosea baduzu, gerra baduzu... gainerakoak hor konpon. Kontua da ez dakigula asko. Bat-batean plastikoak aurkitzen ditugu eta, hara, hau asmakizuna! Baina kontziente izan behar dugu egiten dugunak inpaktua duela, eta uste dut pixkanaka ikasten ari garela. Garaiz ote gabiltzan, hori da kontua. Bestalde, itsasoa oso handia da, ez gara jabetzen horretaz. Itsasoaz oso gutxi dakigu, oso portzentaje txikia ezagutzen dugu. Eta ezagutzen ez dugun horretan bi gauza ditugu: gure ongizaterako baliabideak, eta arriskuak. Esploratu egin behar da, jakiteko. Gehiago dakigu Ilargiaz eta Martez gure itsasoaz baino.

Ez da topikoa? Ez, inondik inora. Esaten da ikerketa asko egiten ari dela itsasoaz. Bai, baina behin eta berriro gauza berari buruz. Beste esparru guztiez ez dakigu ezer.

Muga fisikoek eragozten digutelako? Itsas azpia ez da eroso ibiltzeko moduko lekua. Ez, ez da horregatik. Pentsatu azkeneko hamarkadan ari garela gehien ikasten itsaso sakonaz, interesa dagoelako. Eta interesa dago meatzeak daudelako, eta bioesplorazioaren aldetik ustiaketa industrialerako eta medikuntzarako organismo interesgarriak daudelako, genoma berezia dutenak. Interesa dugunean, esploratu egiten dugu. Zergatik ezagutzen dugu plataforma, kostaldea? Arrantzaleek bizi behar dutelako. Zergatik ezagutzen ditugu itsasadarrak? Hor bizi garelako. Baina ikusten ez duguna ez da existitzen. Eta itsasoan ikusten ez dugun asko dago, oso handia da. Lehorra Lurraren gainazalaren laurden bat inguru da, eta bizitza dago metro bateko sakoneraino; tira, mikrobioak metro batzuetara daude. Eta gorantz kilometro bat, besterik ez. Itsasoaren batez besteko sakonera lau kilometrokoa da, eta leku batzuetan hamarrekoa. Hori bai esparru zabala.

Orain denok gaude klima-aldaketagatik kezkatuta, eta halako ingurumen-kontzientziatxo bat pizten ari da. Testuinguru horretan ezagun bihurtu den berba bat azidifikazioa da. Ozeanoak azidifikatzen dabiltza eta hori, nonbait, ez da ona. Azidifikazioak badu oso ondorio zuzena: organismo asko kalkareoak dira, kaltziozko egitura dute, maskorretan eta beste atal batzuetan kaltzio-karbonato forman dagoena, eta itsasoaren pHa aldatzen bada kristalak beste era batera eratzen dira. Zer arazo dakar horrek? Muskuiluak eta arrainak gutxiago hazten direla, ahulagoak direla, hauskorragoak. Kaltzioa oso garrantzitsua da bizitzarako, gure zelulen komunikaziorako mekanismoaren oinarria da.

Animalien tamaina txikitzeak apur bat folkloriko eman dezake agian (ez da, baina eman dezake) baina badago efektu bat, hiperkapnia izena duena: pHa pixka bat jaisten bada ingurunean [hala gertatzen da azidifikatuz gero], arrainena, muskuiluena eta abarrena ere jaisten da, haiek ez baitira gai, gu garen bezala, barneko pHa erregulatzeko. Eta pHa jaisteak dakar euren metabolismo basala igotzea, hau da, mantenurako behar den metabolismo minimoa. Hori da hiperkapnia. Noski, berdin jaten baduzu eta mantenurako gehiago behar baduzu, gutxiago daukazu hazteko eta gutxiago ugaltzeko. Populazio guztien beherakada eta ahulezia dakar horrek. Izan ere, badago fenomeno global bat, ez dago guztiz frogatuta baina gero eta ebidentzia gehiago dago, organismo gehienak gero eta txikiagoak direla. Guk muskuiluetan, behatu dugu, ez dakigu oso lokala den, ezta azidifikazioarekin lotuta dagoen ala ez, baina egon daiteke.

Mundu osoan jazotzen da hori? Guk Euskal Herriko datuak ditugu. Baltikoko eta Ipar Itsasoko aurretiazko datuetan ikusten da benetan progresio bat dagoela, muskuiluak gero eta txikiagoak direla. Eta Artikoko fokekin lan egiten duten lankide batzuekin gaiaz hizketan, esaten dute «guk ere ikusi dugu foken azala gero eta meheagoa dela». Aldizkari zientifikoetan hasi da agertzen, zaila da azidifikazioagatik den esatea, ez dago datu nahikoa horretarako. Ziur asko ez dago faktore bakarra. Tenperatura altuagoa ere badugu, eta horrek esan nahi du zure metabolismoa bizkortuta dagoela eta gehiago kontsumitzen duzula. Azidifikazioagatik metabolismo basala igota, gehiago gastatzen duzu. Gainera, bero handiagoa bai, baina gero eta hodei gehiago dugu, baina udak ez dira hain eguzkitsuak, are gutxiago hemen. Horrek esan nahi du beroa handitu bai, baina energian argia, gutxiago heltzen dela, beraz ekoizpena txikiagoa da, jateko gutxiago dago. Eta gainera, neguak ez dira hain hotzak, eta ondorioz urteko zikloak aldatu egiten dira. Bi ondorio ditu horrek: bata da ugalketa-zikloak aldatu egiten direla, gero eta animalia gehiago dago urte osoan emankor, eta gametoak askatzen dabiltza baina ingurunea harkorra ez denean. Alferreko gastua. Gauza bera patogenoekin: birusak, bakterioak, parasitoak. Neguan hotz egiten duenean horien populazioek behera egiten dute, baina negua hotza ez bada, ez; beraz, oso indartsu daude hurrengo infestazio-zikloan, eta animalien sistema immunitarioa ahuldu egiten da.

Denetik egiten duten zientzialariak

Behin barruan sartuta kanpotik ikusita zirudiena baino askoz handiagoa den eraikin «magiko» horietako bat da Plentziako Itsas Estazioa. Besteak beste, beheko solairuaren azpitik bi gehiago dituelako. Horietako batean daude akuarioak, bestean estazioaren «erraiak», baina horra ez digute sartzen utzi. «Hemengo erroldan 40 ikertzaile eta hamabost doktoregai inguru gaude, baina egunero hogeiren bat ibiltzen gara», dio Ionan Marigomezek. Biologoak dira asko, baina badaude fisikari-meteorologoak, kimikariak, ingeniariren bat...
Zientzialariak dira, baina ezinbestean administrazio-lanak egitea egokitzen zaie. Dirua ailegatzen dela bermatzea da zereginetako bat. «Esan behar dut Europatik diru nahikotxo eskuratzen dugula, alde horretatik ondo gabiltza; arazo nagusia finantzazio estrategikorik eza da, ez dugu herri-poiekturik, eta bestetik langileak falta dira, teknikariak. Guk egin behar dugu ia dena; lurra garbitu ez, baina kasik».

Neguko lozorroa

PiEko langileak denak EHUkoak dira, eta bulego bana izaten dute Plentzian eta Leioako Zientza Fakultatean. Ionan Marigomezek lan gehiena Itsas Estazioan egiten badu ere, baditu betebehar batzuk campusean. Gehienak neguan egiten saiatzen da, arrazoi sinple batengatik: itsasoa «lotan» egoten da sasoi horretan, eta PiEren «metabolismoa» ere lasaitu egiten da. «Jenda ez da jabetzen, baina orain muskuilu bat hartu eta nahi adina zirikatuta ere, ez du erantzuten». Gorlizko badiara ateratzeko erabiltzen duten motordun txalupa ere gutxitan ipintzen da martxan itsasoko bizitzak «atsedentxoa» hartzen duen bitartean.

Albiste onak, bata bestearen ondotik... [Iribarrez] Bai, baina hau dena nire baikortasunaren barruan esaten dut.

Bide batez: zergatik azidifikatzen da itsasoa? Atmosferan CO_2 gehiago dagoelako. Zati bat ozeanoan disolbatzen da zuzenean, eta azido karboniko bihurtzen da.

***Prestige* petrolio-ontziaren istripuaren ondorioak ikertzen ibili zinen. Zein izan zen horren faktura? Amaitu dugu ordaintzen?** Faktura zein izan den ez dakit. Eta ez dakit ordaintzen amaitu dugun. Esango nuke inpaktu bat egon zela, gure datuen arabera gutxienez 3-5 urte bitartean luzatu zena. Hortik, aurrera ezin dugu jakin. Eta hainbat inpaktu segur aski ez dugu ikusi, ez genekielako gauzak nola zeuden lehenago. Esate baterako, ez dakit berreskuratuko ote zen, baina Galizian bazegoen zigalen arrantza-gunea, *Prestige*ren istriputik oso gertu. Hura gertatzean desagertu egin ziren. «Desagertu dira gure zigalak, hau da hondamendia!». Baina izatez, zer gertatu zen? Irlandako itsasora joan zirela asko. Garestia zen hartzea eta utzi egin zioten; jakina, aldaketa egon da, zigalak egon badaude baina jada ez daude galiziarren eskuetan.

Holakorik hemen gertatu den ez dakigu. Gogoratzen naiz behin elkarrizketa egin zidatela AEBetako aldizkari zientifiko batean. Eta galdetu zidaten: «Zer? Efekturen bat izan da?». Eta esan nien: «Gauza batez seguru nago... *Prestige*ren ondoren daukaguna eta lehenago zegoena desberdina da. Kaltegarria den ala ez subjektiboa da. Baina desberdina da. Ezin duzu eduki bost urteko inpaktu bat ordainik gabe». Horrelakoak beti gertatzen dira, kontua da onargarriak diren ala ez, eta nola molda gaitezkeen, baina ezingo nuke baloratu eta ez daukat daturik esateko zenbat luzatu den.

Uharte arruntak ez ezik, orain plastikozkoak ere baditugu ozeanoetan, eta erraldoiak. Ni gaztea nintzenean lelo bat zegoen: *Against pollution, dilution*. Kutsaduraren kontra, diluzioa. Edozein isurketa bota itsasora eta diluitu, toxikologian badago esaldi bat: pozoia dosiaren araberakoa dela. Txikiago bihurtu dosia eta konponduta. Gero ikusi dugu ez dela hala, badaudela kutsatzaile iraunkorrak, metagarriak... Plastikoak asmatu zirenean pentsatu zen paper gutxiago egin eta Amazonia ez suntsitzeko irtenbidea izango zela. Hori gertatzen da beti: zerbait asmatu arazo bat konpondu dugulakoan, eta asmatutakoak zer beste arazo sortuko duen konturatu ez.

Inork ez zuen pentsatu zer gertatuko zen plastikoekin, eta asko itsasora joango zirela, eta iraunkorrak direnez hor daudela urte askoan. Dena dela, plastikozko uharteak egotea da gutxien kezkatzen nauena. Ia-ia bisita turistikoak egin ditzakegu bertara, eta kontzientziaziorako erabili.

Zer da kezkagarria, orduan? Ikusten ez dena. Kanpainak egiten direnean hondartzetan plastikoak kentzeko, oso ondo iruditzen zait, kontzientziaziorako eta garbitasunerako, baina hori etxea garbitzea da. Benetako arazoa ez da ikusten: plastikoak itsasoan apurtuz doazela, ikusezin bihurtu arte, mikroplastiko eta nano-plastiko bihurtzen dira eta... Gauza bat da plastiko bat foka baten edo izurde baten barruan topatzea, lazgarria, baina esan dezagun anekdotikoa dela, neurri batean. Dena hori balitz... Baina guk geuk ditugu mikro-plastikoak geure gorputzetan, janariarekin batera hartzen ditugu. Normalean inerteak dira, baina patogenoak garraiatzen dituzte eta funtzio biologikoak oztopa ditzakete.

Adibidez, ibaietako arrain batekin egindako ikerketa batean, ez naiz gogoratzen zer espezie den, ikusi da tamainaz txikitu direla eta galdu egin dutela ugaltzeko gaitasuna, ondo elikatu gabe daudelako. Eta hala daude hestearen hormak mikro-plastikoz estalita dituztelako, eta ezin dituztelako elikagaiak behar bezala xurgatu. Ez ahaztu plastikoa ez dela poltsetakoa bakarrik, alkandora hau ere plastikozkoa da, telefono mugikor hori ere bai, eta abar. Plastikoak petrolioaren eratorriak dira. Noiz aldatuko da hau? Petrolioa amaitzen denean. Bost hamarkada inguru barru. ◂

Flashback **Sopelako uda-amaierako jaia 1964an**

UNAI BREA ▶

Irailaren lehenengo astean Sopelan egin ohi den Euskal Jaiak ia mende bateko historia du. Kanpotik bertara uda igarotzera zihoazenak herrian egun batzuk gehiago geratzeko sortu zen, eta ezinbesteko hitzordu bilakatu zen aspaldi. Baina argazki hau egin zenean ez zitzaion Euskal Jaia esaten, uda amaierako jaia baino. Sasoi hartan, ohikoa zen karroza-desfilea egitea. Hemen ikusten duzuen honek hondartzan zegoen taberna irudikatzen du, Milagros Basarte *Laztana*k artatzen zuena. Argazkian ageri direnetako batzuk baino ez ditugu identifikatu. ◀

ARGAZKIAN:
Behean, jesarrita eta marradun mozorroagaz, ezkerretik eskumara:
Jose Ramon Gil *Zurdo*, Jose Luis Apraiz *Kotxetxe*,
Javi Batarra *Huesos*.
Atzean jesarrita: Beatriz Apraiz.
Zutunik: Jose Antonio Zorrategui *Bateko*.

XABIER SAITUAK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora

TESTUA
Nahikari Ayo Acebo

DOINUA
Itsasoari begira

ARGAZKIA
Hodei Torres

Bazterketa

Zeinen gogorra izan daiteke
batzutan ahultasuna,
une txarretan izaten dugu
makulu gure laguna.
Haserraldiek ekartzen dute
askotan nahi ez duguna.
Gaizki ulertuek ta biraoek
zabalduz tunel iluna...
«Klak» egitean gu guztiongan
sortzen da bakartasuna.

«Lodia zara!» ta «cuatro ojos»
egiten diote_iseka,
pertsona hori gutxiestea
izaten ohi dute meta.
Jokaera honek beste umeengan
ez al du pizten arreta?
Ez salatzeak ta isiltzeak
sortu behar liguke kezka,
gure esku dago eta saihestu
behar dugu bazterketa.

Hitz itsusiak eta irainak
lagunen barre ta algara,
Negarrak eta une gogorrak
sortzen dira beharbada.
Aurreiritziak eta gezurrak
sasoiz behar dira laga,
babesa eman eta salatu,
ausartak izan behar gara!
Lagundu, zaindu ta konpontzea
denon ardura_izan behar da!

ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Mundukatuak **Shangai (Txina)**

«Ia egunero kutsadura-mailari begiratzen gabiltza»

IKER RINCON MORENO ▸

Urtebete igaro da Joserra Gonzalez Bilbao algortarra Txinarako bidea hartu zuenetik. Shanghain dabil lanean, Mondragon korporazioko Fagor Arrasate kooperatibak bertara joateko eskaintza egin ondoren: «Enpresan aukera ederra proposatu zidaten, profesionalki zein pertsonalki aurre egin ahal izateko». Aurretik ere bertan egondakoa da eta, aitortu digunez, txinera ikasten dabil egunotan, Mondragon korporazioaren industrialdearen barruan dagoen baserri batean. «Oso gustura nabil hemen».

Hiri bizia da Shanghai, urteko egun eta ordu denetan mugimendua duena, Txinako urteberri egunean izan ezik, «jendea bere jatorriko herrira bueltatzen baita egun horretan» Hala ere, bertara joateko interesa dutenentzako aipagarri gisa, garairik onenak udaberria eta udagoiena direla azaldu digu algortarrak: «Neguan hotz handia egiten du eta udak, aldiz, beroegiak dira hemen». Jatekoari dagokionez, mundu osoko janaria topa daiteke hiri erraldoi horretan, «baina bertokoek ohiko janari txinatarra jaten dute, oso merkea da eta!». Otorduei laguntzeko, normalena da tea edo alkoholik gabeko edariak hartzea, «ospakizunetan izan ezik, kristoko mozkorrak harrapatzen dituzte horietan». Atzerritarren artean, aldiz, berton, mendebaldean, topa ditzakegun edari berdinak edan ohi dituztela dio algortarrak.

Kultura aldetik, hamaika aukera eskaintzen ditu Shanghaik; museo ugari eta ekitaldi asko aurki daiteke edonon. Gune turistikoei dagokionez, aldiz, hainbat gomendatu dizkigu algortarrak, hala nola Bund ingurua (finantza-gunea), Yuyuan garden, Jinang tenplua eta People's square. Azken hori hiriaren erdian dagoen parke berde bat da, eta aste-akabuetan gurasoek aterkiak irekita uzten dituzte lurrean eta horien puntan haien seme-alaben deskribapenak dituzten papertxoak eskegitzen dituzte. «Seme-alabei bikotea lortzeko merkatu antzeko bat egiten dute». Horretaz denaz gainera, eraikin handi, moderno zein tradizionalen artean, gune berde asko daude. Hori eskertzekoa izango da, ia egunero hiriaren kutsadura-mailari begiratu behar izaten diote eta. ◂

Joserra Gonzalez Bilbao

Nongoa
Algorta (Getxo).

Adina
33 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Ikasketak
Ingeniaritza mekanikoa.

Noiz heldu zinen?
2019ko urtarrilean.

Noiz arte bertan?
Printzipioz 2022ko udara arte.



Lurraldea
Txinako Herri Errepublika

Azalera
9.596.961 km².

Hiriburua
Pekin Hiria.

Biztanleria
1.376.049.000 (2015).

Hizkuntzak
Txinera da hizkuntza nagusia eta ofiziala. Dialekto asko dago eta horien arteko aldea hain da nabarmena, batzuek hizkuntzak bereizitzat hartzen baitituzte. Txineraz gainera, nazio gutxituen hizkuntza batzuek nolabaiteko babesa edo ofizialtasuna dute.

Moneta
Renminbia.

Euskal presoak HABEko ikasle ofiziala izateko borroka

«Espetxean daudenek ez dute eu

Kartzelan dauden euskal presoek euskara ikasteko duten eskubidea bermatzeko helburuagaz, HABEk ikasle ofizial moduan onartu ditzan lan egiten dabil euskara-irakasleen sare bat. Une honetan 44 euskal preso inguru daude euskara ikasten, eta horietako sei dira Uribe Kostakoak.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **IKER RINCON MORENO** ▶

Aitor Fernandez de Martikorena eta Erlantz Ibargurengoitia euskara irakasleak.

Euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza eta euskal herritar denek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Horixe da EAEko 10/1982 Legeak dioena; hala ere, lege horretan jasotzen dena ez da euskal herritar denentzat behar besteko bermea. Aitor Fernandez de Martikorena eta Erlantz Ibargurengoitia euskaltegietako irakasleek azaldu dutenez, euskararen ofizialtasuna aitortuta ez dagoen herrialde batzuetan bizi direnek euskara-azterketa egiteko eskubidea dute, hala nola Kanadako biztanle batek edo Bruselako parlamentari batek. Espainiar eta Frantziako espetxeetan dauden euskal presoen kasuan, aldiz, ez dute horretarako bermerik. Irakasleek gogoratu dutenez, iaz arte EGA sistema zegoen eta horrek bermatu egiten zuen euskal presoek euskara azterketara aurkeztu ahal izatea. «Espetxeetako Idazkaritza Nagusia-

skaraz ikasteko bermerik»

rekin zegoen akordioari esker aukera zegoen azterketak kartzelara helarazteko eta bertan azterketak egiteko, ondoren bueltan etorri eta guk zuzentzeko. Orain, aldiz, EGA desagertu da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren barruan kokatuta zegoena; HABE dago orain, eta hori Hizkuntza Sailaren barrukoa da», azaldu du Ibargurengotiak, «hori dela eta, beste akordio bat lortu behar da bi erakundeen artean».

EUSKALTEGIAK ESPETXEETARA. Zazpi irakaslek egindako lanari esker iaz zortzi presok gainditu zuten EGA azterketa. Aurten irakasleen sarea handitu egin da; 49 irakasle dira orain, horietako lau Uribe Kostakoak, Fernandez de Martikoena eta Ibargurengoitia tarteko, eta horien helburua da euskal presoak HABEko ikasle ofizialak izatea. Hori lortuz gero eskolak emateko moduak asko hobetuko liratekeela nabarmendu dute euskara-irakasleek: «Gaur egun idazlanen trafikoa egin behar izaten dugu materiala euskal presoei helarazteko». Ofizialtasuna lortuz gero, aldiz, ikasketa-prozesua normalizatu eta erraztu egingo litzateke: «Aringarria izango litzateke eta ikasteko askatasun handiagoa izango lukete ikasleek, hala nola ikasketa-gelak erabiltzeko eta materiala inolako arazorik gabe jasotzeko bermea izatea».

EUSKARA IKASTEKO ZAILTASUNAK ESPETXEAN. Eskualdeko irakasleek azaldu dutenez, «baldintza txarretan ematen ditugu eskolak, eta materiala helarazteko oztopo handiak izaten ditugu. Presoen bisiten edo telefono-deien zerrendatik leku bat hartu behar izaten dugu tutoreok. Aukera izatekotan, lagun

Bisitak

«Aukera egonez gero, bisitak baliatu behar ditugu materialak presoei helarazteko, eta askotan hori ez da erraza izaten»

Trebetasunak

«Hizkuntza batean trebatzeko oinarrizko lau trebezia daude: mintzamena, entzumena, irakurmena eta idazmena. Askotan ezin ditugu horiek denak landu material-faltagatik»

moduan sartu behar gara, hori demostratu ahal izatekotan; eta halakoetan senideek bisita egiteko aukera galtzen dute». Ibargurengoitiak aitortu duenez, zaila da baldintza horietan inori euskara irakastea, «lehenengo urtea da askorentzat eta tempusak ez ditugu menperatzen. Ikasleak zuzenean izatera ohituta gaude; orain, aldiz, badirudi oso distantzia luzean ari garela». Izan ere, «eskolan bost segundoko kontua litzatekeena, modu honetan asko luzatzen da», Fernandez de Martikorenak gaineratu duenez.

Denera, Uribe Kostako lau euskara-irakaslek parte hartzen dute sarean, eta eskualdeko sei presok parte hartzen dute egitasmoan. «Gogo onez eta pozik daude; Euskal Herria gerturatzeko eta euskaraz berba egin ahal izateko aukera eskaintzen die egitasmo honek, barruan oso aukera gutxi dutelako euren hizkuntzan aritzeko», Fernandez de Martikoenaren berbetan.

BORONDATE POLITIKOA. Euskara-irakasleen sarea HABEko arduradunakaz harremanetan dago gaur egun normalizazioa lortu ahal izateko. Fernandez de Martikorena eta Ibargurengoitiak azaldu dutenez, proposamena aurkeztu zaie alderdi politikoei, «baina oraindino ez dakigu zein izango den erantzuna. Negoziazioak zabaldu nahi dituzte, baina hor dago kontua. Ez dago gure esku; erakundeen artean egongo da erabakia hartzeko tartea». Horren harira, azpimarratu dute gobernuen borondate politikoaren araberakoa izango dela erantzuna: «Eusko Jaurlaritzak bermatu behar du hau dena; Kanadakoei euskal etxeak bermatzen dien bezala. Hori da gure nahia». ◂

Euskara kirolean Waterpolo Euskaraz Bizi!

Hiru letra Leioan euskararen alde bustitzeko: WEB!

Waterpolo Euskaraz Bizi!, horra hor WEB! sigletan bilduta dagoen izena. Argitalpen bi kaleratuz hasi da martxan egitasmoa: *Waterpoloaren Hitzen Kutxa* eta *Waterpoloaren eskuliburua*. Jon Lopezek, Leioako Waterpolo taldeko entrenatzaileak, bultzatu du ekimena.

UNAI BREA ▶

Klubaren jarduera euskaratzen hastean, waterpoloaren terminologia euskarara ekartzeko berben falta sumatu zuten.

Urtarrilaren 29an aurkeztu zuten WEB! proiektua, Leioako Sakoneta kiroldegian egindako ekitaldian, Jon Lopezek berak, Iratxe Marta Uribe Kostako AEK-ko arduradunagaz eta Iban Neira diseinatzaile grafikoagaz. Azaldu zutenez, 2016an hasi zen historia. Sasoi hartan, sortu berri zegoen Leioan Egunon! euskara-taldea, aurreko urteko Korrika antolatzeko elkarlanaren arrakastatik sortutakoa. Harrezkeroztik, Korrikarik ez dagoen urteetan funtzionatzen du Egunon!-ek, eta Korrika dagoenean, berriz, herrian lasterketa antolatzen ibiltzen dira bertako kideak.

2016an Leioako Konpromiso Liburua sustatu zuten, eta urte hartako udaberrian sinatu zen. Leioa Waterpolo taldea izan zen sinatzaileetako bat, eta orduan hasitako hausnarketa-prozesuaren emaitza dira aurkeztu diren materialak.

EUSKARAZ JARDUTEKO TRESNA FALTA. Klubaren eguneroko jardunean euskara normalizatzeko egin beharrekoak identifikatzea izan zen lehenengo pausoa. Jarduerarik ohikoena entrenamenduak direnez, oinarrizkoena horiek euskalduntzea dela azaldu zuen Lopezek. Haatik, bideari ekiteko tresnak falta zitzaizkien. Hau da, espezializatutako hiztegia.

Entrenamenduetan parte hartzen dutenen artean, hamar lagunek osatzen dute talde teknikoa; horietatik bost euskaldunak dira, beste hiru ia-euskalduntzat jo daitezke, eta bi dira erdaldunak, horietako bat euskalduntze-prozesuan. Jokalariak 200 dira, eta nabarmena da gaztetxoengan (2002-2011 artean jaiotakoak) handiagoa dela euskaldunen portzentajea. «Entrenatzaile euskaldunok nork bere erara itzultzen ditugun termino teknikoak modu bateratuan erabiliz, portaera berriak sortuko ditugu kirolariengan»

JON LOPEZ
LEIOA WATERPOLOKO ENTRENATZAILEA

natzaile euskaldunok erdaratik, bakoitzak bere erara, itzultzen ditugun termino oso teknikoak modu bateratuan erabiliz, kirolarien hizkuntz portaera berriak sortzen lagunduko dugu», adierazi zuen Leioa Waterpoloko prestatzaileak.

JOKALARIEN SENIDEENGANA ERE HURBILDU. Aurkezpenean azaldu zutenez, ideia hori izan zen *Waterpoloaren Hitzen Kutxa*ren ernamuina, eta hura garatzeak eman zien kemena Leioa Waterpoloko kideei luzaroan baztertuta izan zuten beste ideia bati berriz ekiteko: kirolarien familiengana kirola eta euskara hurbiltzeko erreminta izango zen eskuliburu didaktikoa sortzea. Asmo horren emaitza izan zen urtarrilaren 29an aurkeztutako *Waterpoloaren eskuliburua*. ◀

Goi-mailako profesional kualifikatuek osatzen dute Dermitek klinikako langile-taldea.

Kendu zure barizeak zain barneko laserraren bidez eta hobetu zure bizi-kalitatea

Atseden hartzea eragozten dizun mina eta koskor antiestetikoak kentzeko unea da dagoeneko. Dermiteken 2010. urtetik erabiltzen dugu zain barneko laserra: zauririk gabeko teknika da, oso eraginkorra; ez du albo-ondoriorik eta barizeak berriro agertzeko tasa txiki-txikia da.

ZURE OSASUNEAN ETA IRUDIAN ERAGINA DUTEN SINTOMAK. Azkurak, erremina, sumina, zango-astuntasuna eta arranpak dira, besteak beste, barize lodien sintomarik ohikoenak. Halere, zure osasunari erasaten dioten beste konplikazio batzuk ager daitezke, esaterako, bena-gutxiegitasuna duten pazienteei gerta dakizkiekeenak. Arazo estetikoak badu eragina: gogoko dituzun jantziak hanketako koskor edo barizeetan pentsatu gabe eramatea gustatuko litzaizuke, esate baterako.

Hortaz, zalantza hau izango duzu: ebakuntza-gelatik igarotzea da konponbide bakarra? Litekeena da ohiko kirurgia probatu eta denboraldi baten ondoren barizeak berriro agertu izana. Beraz, puntuak, anestesia orokorra eta susperraldi luzea berriro jasateaz pentsatze hutsaz, berriz saiatzeko asmoa baztertu duzu.

Zorionez, badaude beste teknika azkarrago eta eraginkorrago batzuk, eta horien eskutik barizeak oso gutxitan agertzen dira berriro.

ZAIN BARNEKO LASERRA: NAZIOARTEAN GOMENDATZEN DEN LEHEN AUKERA. Zain barneko laserra tratamendu segurua, zehatza, azkarra eta eraginkorra da, tratatu beharreko barizean zuzenean jarduten duelako; hots, zangoaren gainerako aldeei eta hurbileko ehunei erasan gabe.

Ahaztu ebakiak, puntuak edo ebakuntzaondoko minak. Berehala ekingo diozu berriro zure ohiko jarduerari, ez duzu laneko bajako egun bat ere ez eskatu beharko, oinez irtengo baitzara kontsultatik.

Gaur arte Dermiteken tratatu diren 2.000tik gora kasuen % 99,6k behin betiko emaitzak lortu ditu

Horregatik, gaur egun, osasun baskularreko nazioarteko erakunde nagusiek tratamendu hori gomendatzen dute barize lodiak tratatzeko lehen aukera gisa, eta gaixotasun hori zuten milaka pazienteren bizimodua aldatu du.

Bilboko Dermitek klinikan 2010. urtetik erabiltzen dugu teknika hori eta gaur arte tratatu ditugun 2.000tik gora kasuen % 99,6k behin betiko emaitzak lortu ditu, eta koskorrak guztiz desagertu dira.

Ohiko kirurgian errezidiba (barizeak berriro agertzea) % 20 ingurukoa da, eta aparrez tratatu direnena, % 40 ingurukoa; gure esperientziaren arabera, zain barneko laserraren bidez tratatu direnena, berriz, % 0,4koa baino ez. Oraindik uste duzu berriro saiatzea merezi ez duela?

HONELAKOA DA DERMITEKEKO ZAIN BARNEKO LASER BIDEZKO TRATAMENDUA. Doppler ekografia bidez monitorizatzen egiten da tratamendua, saio osoan. Ekografoarekin konektatuta dagoen pantaila batean ikusi ahal izango duzu prozesua. Anestesia lokala jartzen da larruazalean, tratatuko den zainean zuntz bat sartu aurretik, oso orratz mehe baten bidez, minik senti ez dezazun.

Dermiteken erabili ohi diren laserrek beroaz ixten dute zaina. Ordubete baino irauten ez duen saioa amaitutakoan, konpresio-galtzerdi bat jarriko dizugu eta klinikatik oinez irtengo zara, ordu erdiz ibiltzera. Oinez aterako zara, laguntzarik gabe, eta berehala ekingo diozu berriro zure ohiko bizimoduari.

ZURE BIZI-KALITATEA HOBETZEA ETA ZURE BARIZEAK KENTZEA POSIBLE DA. Eskatu orain doako hitzordu medikua, konpromisorik gabe. Dermiteken diharduguno k zure barizeen egoera doppler ekografia bidez aztertzen dugu, hots, horien diagnostikoa egiten dugu, eta zure tratamendua nolakoa izango den azaldu. **P.S.E. 144/16**

Armiarma baskularrak

Dagoeneko, 1999. urteaz geroztik, 11.000 saio baino gehiago egin dugu armiarma baskularrak kentzeko, hots, larruazalaren gainazalean agertzen diren zaintxo horiek. Bi laser-mota erabiltzen ditugu horretarako, eta horiek esklerosia aparrarekin bateratzen ditugu, emaitzarik onenak lortzearren.

Saioen iraupena 30-90 minutukoa da, eta krema anestesikoaz edo kanpo-hotzaz baliatzen gara, tratamenduan ahalik eta min gutxien senti dadin.

Negua da urte-sasoirik aproposena barize horiek tratatzen hasteko eta zure hanken itxura hobetzeko; izan ere, 3-5 saio egiten badituzu, nabarmen hobetuko dira. Lehen hitzordu medikoan argibideak emango dizkizugu; hots, zure kasua aztertuko dugu doan.

DERMITEK

Uribitarte Pasealekua,11-12, 48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefonoa:
944 010 110

Astelehenetik barikura 8:30etik 20:00etara, eta zapatuetan 9:00etatik 15:00etara

Sinbologiaz beteta dago *Dantzxori*, hiru urteko ibilbidea besterik ez izan arren Astrabuduan eta inguruan sekulako irrika eta ikus-mina eragiten dituen inauterietako ikuskizuna.

Dantzxori: Astrabuduak ere baditu bere aratusteak

Otsailaren 21ean hirugarrenez anteztuko du Trabudu dantza-taldeak *Dantzxori*, aratusteetarako beren-beregi sortutako ikuskizuna, Astrabuduko Mendiguren plazan. Haren gako nagusiak azaldu dizkigute.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIAK: **TRABUDU TALDEA** ▶

Aurtengoa *Dantzxori Gure Aratusteak* ikuskizuna emango duen hirugarren aldia baino ez bada ere, haren sorrera ez da bart arrastikoa, inondik inora. Esan daiteke gutxi gorabehera mende honen hasieragaz batera gauzatzen hasi zela ideia; Trabudu dantza-taldeak inauteriakaz duen harremana, hala ere, askoz lehenagokoa da, Juan Miguel Luque lehendakariak azaldu digunez: «1976an sortu zen taldea, eta 80ko hamarkadaren hasieran hasi ginen Astrabudura inauteriren bat ekarri guran, zuzenean beste nonbaitetik hartuz eta kopiatuz; garai hartan, Euskal Herri osoko txoko askotan ibili ginen aratuste-sasoian, kamerak eskuetan, beste lekuetan egiten zena ikusteko eta ikasteko: Lantzen, Altsasun, Iparraldean...».

Geroago etorri zen Erandioko inauteri bat edukitzeko grina. Iraganean halakorik izan zen galdetzen hasi ziren, baina erantzun argirik jaso barik. Bien bitartean, garatuz joan zen gerora *Dantzxori* izena hartuko zuenaren ideia nagusia: «Txorierriko haranean gaudenez, ardatza txoriak izatea bururatu zitzaigun», dio Luquek, «eta horregaz batzeko Astrabuduko zer edo zer bilatzen hasi ginen».

Bertako hezeguneari begira jarri ziren orduan, hegazti asko euren migrazio-bidaietan atsedenerako erabilitako gunea baitzen, kutsaduraren erruz erabilera hori asko apaldu bada ere. «Erandion hainbesteko eragina izan duen kutsaduraren gaia gehitzea erabaki genuen, honenbestez», azaldu du Trabuduko lehendakariak. Izan ere, Mendiguren plaza ordubetez hezegunea izan dadin saiatzen dira. Sinbolismoak ez ziren hor amaitu, ordea: mitologiaren eta Erandioko historiaren hamaika irudi eta ikur lotzen ditu *Dantzxori*k.

143
lagun daude izena emanda *Dantzxori* ikuskizunean parte hartzeko lerro hauek idazteko momentuan. Euretako askok jantziak sortzen ere parte hartu dute, dena eskuz egindakoa baita.

23
musikariak dira, eta horietatik 6k dantza ere egingo dute. Askotariko tresnak joko dituzte: txirula, txistua, txakaparta, gitarra, zeharkako flauta, alboka, gaitak...

43
antzezle 14 urtetik beherako umeak izango dira.

UDABERRIARI ONDO-ETORRIA. «Antzinakoen ohiturei begiratuta naturari errespetua nabarmentzen da», dio Juan Miguel Luquek. Kultura zelta ondo ezagutzen du, eta haren barruko Imbolc jaia, otsailaren 1ean ospatzen dena, ekarri digu gogora: «Udaberriaren jaiotza da hori; orain ekinozioa ospatu ohi dugu, baina hori, berez, udaberriaren tontorra da, hor hasten da udaberria galtzen eta uda etortzen».

Oraindino sasoi berri horri ondo-etorria emateko egunotan ditugun ohiturak aipatu ditu Luquek: «Iturenen eta Zubietan, Imbolc-eko dataren inguruan, joareak jotzen dituzte espiritu txarrak uxatzeko eta lurra iratzartzeko; eta beste berdin egiten da Santa Agedan, esaterako». Horren haritik, Trabuduk garbi izan zuen bere aratuste-ikuskizunaren ezaugarri garrantzitsu batek alaitasuna izan behar zuela. «Giroa epeltzen hasi dela ospatzen da, gero eta eguzki gehiago dagoela, gose izateari uzten zaiola (gaur egun supermerkatuak ditugu baina garai batean neguaren amaieran gosea izango zuten, biltegiak hustu ahala), eta abar».

Kultura zeltarekiko loturari eutsiz, lau elementuak (ura, lurra, sua eta airea) *Dantzxori* ikuskizunean adierazteko modua ere bilatu zuten. Eta horretarako, zer eta Astrabuduko sarreretako batean, itsasadarraren ertzean dagoen *Sustraiak* eskultura baliatzea erabaki zuten, goiko argazkietako batean ondo ikus daitekeenez.

HIRU JENTILAK. *Sustraiak* eskulturak hiru lanbide adierazten ditu: nekazaria, arrantzalea eta fabrikako behargina. Nekaza-

Argumentuz, janzkeraz, koreografiaz zein doinuz oso aberatsa da *Dantzxori*. Den-dena, Trabuduko kideek sortua.

ria, esan beharrik ez dago, lurragaz lotuta dago; arrantzalea uragaz, eta fabrikako langilea, berriz, aireagaz elkartu zuten Trabudukoek: «Lantegiakaz lotu genuen airea, lan bila etorritako migratzaileengatik, txoriak hezegunera airetik etortzen diren bezala». Laugarren elementua falta zitzaien, sua alegia. «Astrabuduko futbol-zelai berria egiteko induskatzen hasi zirenean harri bolkanikoak agertu zirenez, behar genuen laugarren sinboloa sumendia izatea bururatu zitzaigun», argitu du Juan Miguel Luquek.

Sustraiak eskulturako hiru figurek, bide batez esateko, jentilen rola betetzen dute *Dantzxori* ikuskizunean: «Oparien bidez lurra iratzartzen ahaleginduko dira, nahiz eta lurrak, gizakiok eragiten dugun etengabeko kutsaduraz nekatuta, nahiago izango duen betiko lotan geratu». Urtaro bakoitzak bizitzaren zikloan zer garrantzi duen erakusten saiatzen da Trabudu taldea *Dantzxori*ren bidez, eta hain zuzen ere jentilak arduratzen dira urtaro bakoitzaren elementu bereizgarriren bat ekartzeaz, «ondoren sorginek ereingo dutena».

TXORIAK GENITUEN MAITE. Ikur gehiago: Astrabuduko Atxutegi eta Bilboko Kontsulatua kaleek bat egiten duten lekuan hiru harri daude, «hiru arrautzaren modukoak», eta ikuskizunaren sortzaileek beste lotura sinboliko bat egiteko horiek erabiltzea erabaki zuten. «Gure inauteria hiru alderdigaz elkartzeko baliatu genituen», dio Luquek. Horietako bat ingurumena da, eta hori ordezkatzeko txori bat sortu zuten: *Lertxuntxu*. Beste arrautza garrantzitsu bat tradizioarena eta alaitasunarena da, eta horri dagokion txoriak *Dantzxori* du izena, hain zuzen ere.

Euskara da hirugarren alderdi nagusia, eta *Txindorra* txoria, haren ikurra. Hau da, txantxangorria, bertoko euskaraz esanda. Izan ere, ikuskizuna prestatzeko egindako hamaika lanetako bat inguruko adineko pertsona euskaldunakaz berba egitea izan zen, «hemengo txorien izenak zeintzuk ziren esan ziezaguten», Juan Miguel Luqueren berbetan. Ez da harritzekoa ikuskizunaren hasierako ideia biribiltzeko hamabost urte baino gehiago behar izana.

Badago protagonismo bereziko beste hegazti bat *Dantzxori*n: *Kina*, betidaniko ohiturari jarraituz Astrabuduko hezegunera ailegatzen den hegabera bat, dena zikin eta animalia barik topatzen duenean harritu egiten dena eta ikusleakaz eta *Basandere* pertsonaiagaz berba egiten duena (hezeguneko anderea da *Basandere*) ingurumenaren egoera negargarriaren gainean. Azkenik, kaioak daude: euren egiteko nagusia aipatutako hiru arrautzentzat habia prestatzea da.

BEREN-BEREGI SORTUTAKO MUSIKA ETA DANTZA. Igarriko zenutenez, antzerkiak berebiziko garrantzia du *Dantzxori*ren emanaldian. Baina dantza-talde baten sorkuntza izanda ulertzekoa denez, musika eta koreografiak dira ikuskizunaren ardatz nagusiak. Den-denak Trabuduk sortutakoak. Honela azaldu du Juan Miguel Luquek sorrera-prozesua: «*Dantzxori*n hamaika doinu entzuten dira, eta denak dira nik asmatutakoak. Burura etorri ahala grabatu egiten nituen, eta ondoren Idurre Erauskin musika-irakasle eta taldeko kideari ematen nizkion hark partiturak idatz zitzan, nik ez baitakit solfeo askorik. Beste alde batetik, taldeko dantzariei entzunarazten nizkien, ea doinu bakoitzagaz zer dantza-mota egin zitekeen galdetuz (makil-dantza, zinta-dantza, jota, fandangoa, jauzia, arku-dantza...); hortik abiatuta asmatu zituzten koreografiak».

Prozesuak aurrera jarraitu du 2018an *Dantzxori* lehenengoz jendaurrean aurkeztu zenetik, eta horri esker, otsailaren 21ean («ia-ia Ilargi berriagaz») egingo duten emanaldian aurreko urteetan ikusi ez diren dantza berriak erakutsiko dituzte, seguruenik, eta aurreko urteetan legez, plaza beteko duen jendetzarentzat. Tradizioak, tradizio izateko, ez du urte askoko ibilbide luzea behar derrigorrez. ◂

Astrabuduan euskaraz

Oinarria dantza izan arren, testua ere badu *Dantzxori*k, eta den-dena euskarazkoa da. «Eztabaida handia izan genuen horretaz», azaldu du Juan Miguel Luque Trabudu taldeko lehendakariak, «Astrabudua ez baita oso auzo euskalduna». Azkenean ikuskizunak euskara hutsezkoa izan behar zuela erabaki zuten, «eta jendeak kontzientzia apurra garatu beharko zuela horretaz». Edozelan, ikuskizuna azaltzen duen triptiko elebiduna banatzen dute, euskaraz ez dakitenei ere elkarrizketak zelan edo halan ulerrarazten saiatzen dira, hizkuntza ahalik eta errazena erabiliz, eta keinuen eta argiztapenen bidez berbei lagunduz. «Lehenengo urtean hanka-sartzea egin genuen», dio Luquek, «testuak hizkuntza bietan ageri ziren orriak eman genizkien ikusleei, baina gero ezin zituzten irakurri, ilunegi zegoen eta».

Hitzordua

Otsailaren 21ean, 20:00etan hasiko da *Dantzxori*. Iraupena ia ordubetekoa izaten da.

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:

Hamaika

...Bai, arrazoi duzue. Eskolako bazkaria ez da beti gustukoena izaten. Alde ederrekoak izaten dira amamaren kroketak! Baina ahaztu hori, eta bila itzazu irudi bi hauen artean dauden hamaika ezberdintasunak.

Grafitia

Imajina ezazu ondoko hau zure eskolako pareta dela. Egin ezazu graiti lotsabako samar bat. Edo gurago baduzu, aldarrikatu ezazu zerbait, idatziz.



Itzala

Zein da gure rock and roll zalearen itzal zuzena?

Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?

Saria Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 2-3 urteko umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, otsailaren 19a (eguaztena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat gure webgunearen bidez:
- **www.hiruka.eus/zozketak**

Mototsa buruan eta ibili munduan! **Atxartetik Astxikira**

Ibilbide aproposa haitzeko mendietan hasteko

TESTUA ETA ARGAZKIA: **MARIA GOROSTIOLA LASHERAS**

Durangaldeko mendi baten ibilbidea dugu hau, eta ez da azkena izango. Izan ere, maiteminduta nago eskualde honetako mendi harritsuakaz; ondorioz, gainontzekoak ere ikusiko ditugu hurrengoetan. Hauxe da Anboto mendilerroko mendirik txikienetako bat, baina horrek ez dio edertasuna kentzen; honebestez, zuek egiaztatzera animatzen zaituztet gaurkoan!

Atxarteko harrobian utziko dugu autoa; betiko legez, aurrerago egiteko aukera daukagun arren, gehienek bertan aparkatzen dutela ohartuko zarete. Ikusten den bide bakarretik igotzen hasiko gara, lehenengo bidegurutzeari uko eginez (2 min); ezkerreko bidetik jarraituko dugu, Txakurzulorako zidorretik hain zuzen ere, lehen aipatutako bigarren aparkalekura ailegatu arte (4 min). Seinale-tantaiak adierazita, Guenzelaiko landetara garamatzan bidezidorra hartuko dugu. Pagadi batetik igaroko gara, urtaroaren arabera erabat ezberdin ikusiko dena. Lurrez estalitako bidea da hori, pagoetako sustraiek zeharkatzen dute alde batetik bestera, euren artean besarkatuta egongo balira bezala. Egurrezko hesi bat gurutzatu beharko dugu pinuditik doan bidetik jarraitzeko (17 min). Handik eta gutxira, adi egon beharko gara ezkerretik abiatzen den basabidea hartzeko (21 min), aurrera jarraituz gero gure helmugara ailegatuko gara, baina nire ustez hobe da hemendik joatea, politagoa delako, baita laburragoa ere. Normalean harri txikiekin egindako mugarriak egoten dira, baina mendizaleek mantendu behar dituztenez, ez hartu erreferentziatzat, beti ez dituzuelako aurkituko. Pinudi hori zeharkatu eta gero, inguratzen gaituzten zuhaitzak desagertu eta leku zabal batera ailegatuko gara. Zurezko bigarren hesi bat gurutzatu beharko dugu eta ustekabean Artolako mendi-lepora ailegatuko gara (30 min). Eskuman Alluitz mendia ikusiko dugu; denbora izanez gero aukera polita da egun berean gailur bi mendean hartzeko.

Arreta ezkerrean dagoen mendiari eskainiko diogu eta kareharrizko bidetik abiatuko gara. Mendi txikia denez ez dago galtzeko aukerarik, baina lokatzez zikinduta dauden harrietatik igarota errazagoa egingo zaigu igoera. Izan ere, horixe da jende gehienak aukeratzen duena eta horregatik egoten da lokaztuta. Lehen aipatu bezala, mendi txikia den arren azken txanpa horrek gutxieneko trebetasuna eskatzen du, harri askeak daudelako eta posible delako eskuen laguntza behar izatea momentu batzuetan. Tontorrera arte, bideak sigi-saga labur baina aldapatsua egiten du; konturatu orduko, Astxikiren gailurrean egongo gara (1h)! Balkoi-itxura daukan mendi-punta horretatik gozatu daitezkeen bistak zoragarriak dira, inork ez luke esango 800 metrora baino ez gaudela. Alluitz eta Untzillatxen anaia txikiaz gozatu eta gero, etorri garen bidetik itzuliko gara kotxera.

Malda eta distantzia
500 metro eta 4,41 kilometro.

Altuera
791 metro.

Denbora
Ordubete inguru.

Zailtasuna
Erraza.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa
Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru ikuskizunetako batez gozatzeko sarrerak irabaz ditzakezu

Hiru emanaldietako batera joan gura baduzu, bidali erantzuna otsailaren 17a (astelehena) baino lehen (*Nire aita ogro bat da* ikuskizunaren kasuan, epea otsailaren 10era artekoa izango da).
• www.hiruka.eus/zozketak

Sariak

Nire aita ogro bat da

Umeentzako antzezlana, euskaraz Sopelako Kurtzion, otsailaren 14an (18:00etan). Sarrera bikoitz bi zozkatuko ditugu.

Gorputzu

Dantza garaikidea Kultur Leioako auditoriumean, otsailaren 21ean (20:30ean hasita). Sarrera bikoitz bi zozkatuko ditugu.

Erlauntza

Euskarazko antzezlana Getxoko Muxikebarri gunean, otsailaren 22an (20:00etan). Bost sarrera bikoitz zozkatuko ditugu.

Zozketa
Zubiaren liburu ederrak!

Zubia argitaletxeari esker, 12 urtetik gorako gaztetxoentzako *Begiko* bildumaren hainbat libur ditugu zozkatzeko. Euskal autorerik eta ilustratzailerik onenen lanak biltzen ditu *Begiko* sailak, atzerriko batzuekaz batera.

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 20a (eguena) baino lehenago eman izena HIRUKAren webguneko zozketen atalean:
• www.hiruka.eus/zozketak

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Kaleko Urdangak

STRIKNINA

ZETALAU

URIBE KOSTAKO GAZTEEN PRENTSA LOKALAREN ALDEKO JAIALDIA

MARTXOAK 14

TXORIMALO GAZTETXEAN

TXUPITO BEREZIAK
ETA SORPRESA GEHIAGO!

20:00ETAN KONTZERTUAK
24:00ETAN DJ-A SARRERA: 5€

BARNETIK

hiruka